



ttipi-ttapa



Mendi bizikleta ibilaldiak Lesaka, Bidasoa eta Saran

2010eko irailaren 16a | XXX. urtea | 526. zenbakia

www.ttipi.net

Herriko bestak

Aniz, Urroz eta Igantzin

BERA → 15

Lore Jokoak irailaren 16tik 19ra

ITUREN → 24

Joaldunen Eguna irailaren 18an

GOIZUETA → 30

Euskal Jaia igandean Iskibi kanpinean

BAZTAN → 35

Pirinioetako behien lehiaketa-enkatea



Koteto Ezkurak buruz buruko hamargarren txapela eskuratu du

Doneztebarren arteko lehian, Koteto Ezkurra gehiago izan zen irailaren 4ko finalean eta 30-24 irabazi zion Julen San Migel gazteari.

DONEZTEBE → 22

Duela ia 800 urte Amaiurko Gaztelua lehenengoz eraiki zenetik 1982an berreraikitako monolitoa altxatu zen arte, hamaika arrasto gelditu dira igaro diren gertaeren lekuko. Orain, azkeneko 5 urteotan, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, lurpean gelditu diren aztarnak ari dira bistaratzin. Aurten, Gazteluarren sarbidea izan zena aurkitu dute.

ELKARRIZKETA → 3



ARKEOLOGIA LANAK AMAIURKO GAZTELUAN

Lurpean dagoena bistaratzin

Incansables txarangak 40 urte beteko ditu aurten karririk musikaz alaitzen

Musika joz ongi pasatzeko helburuarekin sortu zen Incansables txaranga, 1971n Gipuzkoa aldean. Baina eskualdeko herriak ere ederki ezagutzen ditu, eta bereziki Leitza. Hasierako urteetatik bisitatu duen tokia baita. Bederatzi musikarik osatzen dute gaur egun Incansables txaranga eta horietatik bi lesakarrak dira, baina 40 urteotan leitzarrak ere pasatu izan dira taldetik.

ERREPORTAJEA → 4-5

ZOZKETA → 47

TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da!






ORDOKI

altzariak

ESKAINZA
BEREZIAK

Estilo ugariako mogleak



ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

INAUGURAZIOA

IRAILAK
18
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik

02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

PIRRITXETA PORROTX

IRAILAK
19
IGANDEA

17:00 6€ | Antolatzailea: Bartzan Ikastola Laguntzailea: Lur Aretoa

BACK

BIDASOA
BEAT &
BLUES
BAND

IRAILAK
24
ORTZIHALA



garagardategia

00:00 Dohainik

EUSKAL JAIA

IRAILAK
25
LARUNBATA

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



garagardategia

MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...
OSTRAL, LARUNBATA ETA JAIDUNIKO BEKPERETAN IREKIA
ERDISEKAK • TEL. 948581893



Lur

WWW.LURHELIZOKOO.COM

Bortz urte pasatu dira Aranzadi Zientzia Elkar-
tea Amaiurko Gazteluan indusketa lanak egi-
ten hasi zenetik. Geroztik, abuzturo lanean
aritu da herritarren laguntzarekin eta Udalbide

eta Baztango Udalaren dirulaguntzarekin.
Hainbat izan dira egindako aurkikuntzak, tar-
tean XIV. mende hasierako materialak eta
Franco garaiko bunkerrak. Juantxo Agirre

Mauleon Aranzadiko kide eta Amaiurko indus-
keta lanen arduradunak hasierako aurreikus-
penak gainditu dituztela adierazi digu eta
aurtengo emaitza ikusgarriagoa dela ziurtatu.

Juantxo AGIRRE MAULEON | Amaiurko Gazteluko indusketa lanen arduraduna

«Aurtengo indusketa lanen emaitza bisitariarentzat ikusgarriagoa da»

G. PIKABEA | AMAIUR

Aurtengo aurkikuntzak ikusgarriak izan dira...

Lehenengo aldiz, Gaztelura jatorrizko bidetik sartu daiteke. Orain arte, XX. mendeko pista aldapatsu batetik igo izan gara. Harresi guztien gainetik egina zegoen eta hori kentzean, azpian, harresiaren paretak eta hondakinak azaldu dira, eta Gazteluak bere ikusgarritasun guztia hartu du. Hortaz aparte, gaztelu batek hainbat garai izaten ditu eta Amaiurkoak bizitza luzea izan du, Nafarroan gutxi bezala. Duela 800 urte sortu eta 1945-era arte eraikuntzak egin dira. 1982an berreraikitako monolitoa aipatuz gero, gaur egunera arte hainbat etapa egon direla esan dezakegu.

Zein aurkikuntza egin dira?

Bost urtez arakatu ondotik, gaur egun fase guztiak ikus daitezke. 1635-eko baluartearen diamentepunta bat osorik aurkitu eta mugatu dugu. XVI. mende hasieran espainolek eraikitako beste baluarte bat ere bai, eta horien barruan, Erdi Aroko bigarren harresiaren bi dorreak bistan utzi ditugu, baita tarteko harresia ere. Barruan, XIV. mendeko harresia bere bost dorreekin eta sarrera bat bistan gelditu dira. Aztarnategi honek hainbat fase ditu bistan eta orain seina-



UTZITAKO ARGAZKIA

Juantxo Agirre Mauleon, Amaiurren indusketetan aritu den lantaldea gibelean duela.

lizazioari ekin behar diogu. Aurten batez ere garbiketa sakonak egitekoak ginen, harresiak eta egiturak bistan utzi eta zaharberritzeko, baina gure sopresarako harri batzuen azpian, XVI. mende hasierako zenbait aztarna agertu dira. Ikusgarriena 1,1 metroko ezpata oso bat izan da, baita zeramika zatitxoak eta 14 kilo inguruko kainoi bolak ere. Aparteko materialak dira, eta 1521 eta 1522ko gertaerekin lotuta daudela uste dugu. **Nola bizi dituzte herritarrek aurkikuntzak?**

IKUSGARRIA

«Lehenengo aldiz, Gaztelura jatorrizko bidetik sartu daiteke. Orain arte, XX. mendeko pista aldapatsu batetik igo izan gara. Harresi guztien gainetik egina zegoen eta hori kentzean, azpian, harresiaren paretak eta hondakinak azaldu dira, eta Gazteluak bere ikusgarritasun guztia hartu du»

Lanen bilakaera zuzenean ikusi dute herritarrek, eurek ere parte-hartzaileak izan direlako. Ez dute ezagutzen orain arte zegoen mendia, erabat aldatu delako, eta lehen-dabiziko aldiz igotzean, begiak zabaldu eta harri-duraz begiratzen dute. Gauza asko dituzte eskaintzeko, baina badakite Euskal Herri osorako erreferentzia bat direla, eta beraien kultur eskaintza horretan, Gaztelua da erreferentzia haundiena. **Gazteluaren historia nola laburtuko zenuke?** Erdi Aroko Gazteluaren

historia Nafarroako Erresuman zeuden gainerakoen antzekoa da. Erregeek eraikitakoa da, erdi mailakoa—ez haundiena, ez txikiena—, eta Nafarroako konkistan protagonismoa hartu zuen. Gure Erdi Aroa Nafarroako Erresumaren desagertzearekin bukatu zen. Hortik aurrera, gaur egun arte mantendu den muga sortu zen Pirinioetan. Nafarroako konkistan protagonismoa hartu zuen, eta XVII, XVIII, XIX eta XX. mendeetan, mugatik hain gertu izanda, Espainia eta Frantziaren harreman politikoaren arabera, Gazteluan hainbat eraikuntza egin ziren, egin eta desegin. Eta hori da Gaztelu honen beste ezaugarria: eraikitzeko eta apurketa prozesuak biak oso garrantzitsuak izan direla. Gaztelu honek irakurketa hori du, gauzak eraiki baina beti erortzen dira. Horatzean gu guztion sakabanaketa dago.

Orain zer egingen duzue?

Udala eta herritarrekin batera, erakusketa bat prestatzen ari gara Amaiurren eta horrekin batera, oinarriko informazioarekin argitalpen txiki bat. Negu hasierarako prest egonen dela pentsatzen dugu. Oraindik ere egiteko asko dagoenez, hurrengo urtean ere segituko dugu.

Elkarrizketa osorik:
www.ttipi.net-en.

MUSIKA → URTEURRENA

Bestarik besta kaleak musikaz alaitzen 40 urte eginen ditu aurten Incansables txarangak

Gaur egun bortz nafarrek eta lau gipuzkoarrek osatutako taldea da

Musika joz ongi pasatzeko helburuarekin lagunartean sortu zen Incansables txarangak 40 urte beteko ditu aurten. Guttu izanen dira berak adina toki bisitatu

dituen txarangak, zenbatuezinak beharbada, baina herriren bat nabarmentzekotan, hori Leitza da: lehendabiziko urtetik musikaz alaitu duen herria.

G. PIKABEA

Bestetako gonbidatu garrantzitsuak izaten dira txarangak, bazterrak umorez eta musikaz alaitzen dituztenak. Eta herritarrek ere gustura hartzen dituzte euren doinuak. Hainbat dira Euskal Herrian dauden txarangak, eta gure eskualdean ere badira, baina seguru aski bakarria izanen da 40 urtez horretan dabilena: Incansables txarangaz ari gara.

Leitza eta eskualdeko bertze herri batzuk ederkiezagutzen



dituen txaranga honek ia mende erdia beteko du aurten.

GIPUZKOAN SORTUA

1970ean, Gipuzkoan lagunartean sortutako ideia batetik abiatu zen guztia. Bortz lagun musikari elkartu eta ateraldiak eginez han eta hemen musika jotzen hasatea erabaki zuten. Eta halaxe egin zuten 1971n.

Jose Esnaola tolosarra tronboiarekin, Villabonako Jesus M^a Zalakain

bonbardinoarekin eta Txomin Kastro tronpetarekin eta Hernaniko Felipe Sagarna Zapa kajarrekin eta Joakin Ortega Canario saxofoiarekin izan ziren sortzaileak, 18 eta 28 urte inguruko gazteak.

Gustuko zuten musika herriz herri eta bestaz besta zabalduz, gozatzeko helburuarekin hasiz boskotea harat honatean. Eta hasierako hilaibete haietan ailegatu ziren **Leitzara** ere. Bortz egunez segidan jo zuten lehen herria izan zen **Leitza**, eta

hortaz berezia:

«Horregatik esaten dugu txaranga no-

labait **Leitzan** sortu zela», azaldu digu 40 urteren ondotik taldean segitzen duen musikari bakarrak, *Canariok*. Gerroztik, urteroko hitzordua **Leitzan** egiten du Incansables txarangak.

Taldearen izena ere **Leitzan** proposatu zieten: «**Leitzan** geundela,

emakume batek txaranga izena zein zen galdetu zigun, eta ez zuela izenik erantzun genion, han eta hemen ibiltzeko asmoa zuen lagun talde bat ginela. Emakumeak, orduan, egunen batean izenajartzekotan Los Incansables jartzeko esan zigun». Eta 1972an, ekitaldi gehiago ateratzen joan zirenean eta izen baten beharra sortu zenean, emakume hark **Leitzan** errandakoaz gogoratu eta izen huraxe erabili zuten.

Ez da, ordea, **Leitza** urtero bisitatzen duten herri bakarra; Hernani, Tolosa, Bergara, Lazkao, Zumaia, Iruñea, **Elizondo**, Valtierra, Erreterria, Azpeitia, **Sara**, Uxue eta Bermeora ere urtero joaten dira. Eta Euskal Herrikanpo, Britainia, Isosoudum, Bartzelona, Madril eta Errioxa aldean ere ibiliak dira.

ORAIN LANA ERE BAI

Hasierako hamaika urteak bestaz besta eta Euskal Herri osoan barrena ateraldiak eginez pa-

satu ondotik, egutegia betetzen joan zen heinean, kontua serioago hartu zuten taldekideek. Entseguak egiten hasi ziren, kantu berriak ateratzen... Dibertsio izatetik, aldi berean, lana ere izatera pasatu zen Incansables txaranga egitekoa. Eta hiru L.P. eta hiru CD ere atera zituen.

Gaur egun 20 urtetik hasi eta 58 urte bitarteko bederatziko musikari gizonetako osatzen dute txaranga, eta tartean badira lesakarrak ere: Tafallako Xabier Olkoz (bonboa) eta Jabi Hernandez (platoak), Donostiako Igor Ruiz (kaxa), Tolosako Josu Sanchez (bonbardino) eta Jesus M^a Moneo (tronpeta), **Lesakako** Pello Etxebeste (tronboia) eta Mikel Iriarte (tronpeta), Artaxonako Jesus M^a Mendia (saxofoia) eta Hernaniko Joakin Ortega *Canario* (saxofoia). Bederatziko lantaldeaz gain, badira uda partean ordezkapenak egiten dizkieten bi lagun ere: Xabi Fagoaga lesakarra (tronpeta)





UTZITAKO ARGAZKIA
Gaur egun Incansables txaranga osatzen duten musikariak. Goiko ertzeretik: Mikel Iriarte, Pello Etxebeste, eta Xabi Fagoaga. Behekoak: Mikel Iriarte eta Xabi Fagoaga.

eta Ibon Mendibil tolosarra (saxofoia). Azken honek *Canario* ordezkatzan du, hernaniarra 25 urte betetzear den Gaubela musika taldean ere aritzen delako.

Uda betea izaten du Incansables txarangak, eta uda honetan, adibidez, 50 herritik gora bisitatu dituzte, eta zenbaitetan, aste bat edo gehiagoko egonaldia egin dituzte.

Udatik aparte, urtarrilean Donostiako danborradan eta **Leitzako** inauterietan eta otsailean Tolosa, Hernani, **Lesaka** eta Donostiako inauterietan jotzen dute. Eta martxoa, apirila eta maiatza lasaiago pasatu ondoren, ekainaren 23an hasita irail bukaera arte, ia egunero jo behar izaten dute. Urria hurbiltzen ari denean ixten dute egutegia. Entseguak, berriz, astean egun batean egiten dituzte, Hernanin.

Denboraldia bukatzeaz duen arren, halako egutegia ikusita, ez dirudi bere azken urtea izanen denik.

IZENA, LEITZAN SORTUA

«Leitzan geundela, emakume batek txarangaren izena zein zen galdetu zigun, eta ez zuela izenik erantzun genion, han eta hemen ibiltzeko asmoa zuen lagun talde bat ginela. Emakumeak, orduan, egunen batean izena jartzeko-tan Los Incasables jartzeko esan zigun»

J. ORTEGA, *CANARIO*
Txarangako beteteranoa

DATUA

9

MUSIKARI

ditu gaur egun Incansables txarangak. Horietatik, bi lesakarrak dira: Mikel Iriarte eta Pello Etxebeste. Udan ordezkapenak egiten dituen bertze lesakar bat ere aritzen da taldean: Xabi Fagoaga.

INCANSABLES TXARANGAN 40 URTE DARAMATZAN MUSIKARI BAKARRA

«Urteekin dena aldatu da, txaranga bera eta publikoa ere bai»

• Nolatan sortu zen Incansables txaranga?

Hernaniko Ergobi auzoan bost lagun elkartu ginen 1970ean, eta hurrengo urtetik aurrera musika joz eta ateraldiak eginez probatzea pentsatu genuen. Andoainen eta Tolosa aldean gauza solteak egiten hasi ginen, eta urte hartan, Leitzara ere joan ginen. Leitzan bost egunez jarraian jo genuen, eta lehen aldiz gogor jo genuen aldia hura izan zen. Horregatik esaten dugu txaranga nolabait Leitzan sortu zela. Gero Goizuetara joan ginen, eta Ergobira etorri ginen handik. Garai hartan, ez genuen sobera serio hartzen, jan-edana eskaintzen zigiten eta 18 urterekin ez genuen gehiago behar. Festaz gozatzea izaten genuen helburua, eta etxetik noiz ateratzen ginen jakiten genuen, baina ez noiz ailegatuko ginen. Urteekin, serio konprometitzen hasi ginenez, lana bihurtu da.

• Zer aldatu da 40 urteotan?

Dena aldatu da, txaranga bera eta publikoa ere bai. Gure hasierako 11 urte haiek hara eta hona eskurtsio moduan egin genituen. Txaranga-k bostak gure musika-tresnak izateaz gain, autoan bonboa eta txapak eramaten genituen, herri bakoitzean horiek jotzeko moldatzen zen norbait beti izaten zelako. Baina egutegia betez joan zenean, entseguak egiten hasi ginen eta taldea handitzen joan zen. Nirekin hasi zirenak taldea utzi zuten, eta haien ordez jende gaztea lanerako gogoz sartu zen, eta urtero bozpasei kan-



Joakin Ortega *Canario*

tu berri sartzen hasi ginen. Jende gaztea musika ikasketekin etorri da taldera eta hori ere nabaritu da. 40 urteotan 40 musikari inguru pasatu izanen dira txarangatik. Bestalde, gaur egungo gazteek musika ekipoak eta gisa guztietako musika entzuteko aukera dute etxean, baina ordukoek gozatu egiten zuen txarangarekin. Eta jendea gustura zegoela ikusita, gu gelditu gabe.

• 40 urteotan anekdota aunitz pasatuko ziren, ezta?

Anekdota asko izan dira. Furgonetan abiatu, jo behar genuen herrira ailegatu eta musika-tresna etxean ahaztea behin baino gehiagotan gertatu izan da. Eta beste taldekide bat, bere lehenengo egunean, orduarekin nahasi egin zen eta gauean 23:00etan jo behar genuela ulertu beharrean, han agertu zen goizean 11:00etan. 40 urteetan anekdota asko izan ditugu.



UTZITAKO ARGAZKIA
Txarangaren bostzordea.



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Behin batean...

Erdizko paraje zoragarri batean, 4 eme topatu ziren bazkatzen. Planik ba al duzue irailaren 24, 25 eta 26rako? Etorri nahi al duzue Elizondoko Merkatu Plaza? Hor topatuko gara bazter guztietako eme eta ar dotoreenak, eta aspalditxo ez ditugu hainbeste ipurdi polit elkarrekin ikusi, eta denak bertakoak. Guretzat ferri berezia izanen da, gainera joan den urtean maitemendurik geratu nintzen Legasatik etorri zen ar eder harekin, hori ipurdiak eta hori... hago isilik!! Tetelduta hago! Bestetik, gizaki aunitz ere izanen da bertan, eta horrenbesteko begiradekin ez ote gara lotsatuko? Gu lotsatu, zera!! Pirenaikoak, bertakoak gara: gu dastatzen gaituenak gozatzen du, eta garrantzitsuena da gurekin egunero lanean diharduena, beharbada ez da aberastuko, baina... hagitz zoriontsu eginen dugu.

Han topatuko gara bazter guztietako eme eta ar dotoreenak, eta aspalditxo ez ditugu hainbeste ipurdi polit elkarrekin ikusi, eta denak bertakoak

Ezpala

Aitor AROTZENA

Hauteskundeak hilabetero

Sunbillako bidegurutzearen aferari hurrengo Errepide Planean emanen diogu soluzioa, herritarren eskariak kontuan hartuz. Doneztebeko futbol zelairako subentzioa? Eskatu! Eskatzen ez bada, ezin baita eman. Eguneko Zentroa? Lehen fasearekin hasi gara, beti kontuan hartu baitugu Bidasoaldea. Sanzek errana, eskerrak zuri jauna. Hauteskundeak hilabetero nahi ditugu.

Nabarmentzekoak



Patxi VILA
Berriz ere profesionala

Urte eta erdiko zigorra bete eta aurten talderik gabe egon ondotik, heldu den denboraldirako Italiako Ceramica Flaminia taldearen eskaintza jaso du Berakoak. Berriz ere tropelean izanen da.



Koteto EZKURRA
10. txapela buruz buru

Kursaal Kasino edo buruz buruko erremonte txapelketa hamargarren aldiz irabazi du Kotetok. Herritarren arteko lehia estuan, 30-24 irabazi zion finalean Julen San Migel gazteari.



Antonio ALUSTIZA
Aresoko artzaia

Nafarroako Artzain Zakur txapelketa 11. aldiz irabazi zuen abuztuaren 29an Uharte Arakilen *Ttiki* zakurrarekin. Azken zazpiak segidan eta horietatik bost *Ttikirekin* lortu ditu.

Atzera begira → 1991.09.26 / TTIPI-TTAPA 70. zbk



Nekazaritza turismoaren hastapenaz

Azalean *Agroturismoa: fenomeno berria* izenburupean nekazaritza turismoaren berri eman genuen duela 19 urteko aldizkarian. Gaur egun gurean hain eza-guna eta arrunta den sektorea hasi berria zen orduan. *36 baserri-hotel gure eskualdean* titularra zuen erreportajeak eta 165 lagunentzako oporlekua eskaintzen zutela jakinarazi zen. Eratsungo Martuneko M^a Carmen Deskargak aipatu zigunez, «Sevilla, Bartzelona eta horrelakoetatik etorri dira eta oso gustura ibili dira orain artiano». Bertze baserrietan ere gustura ageri ziren esperientzia berriarekin eta, bistan denez, geroztik aunitz hedatu da.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Euskaldunaren errespetua

Pello APEZETXEA

70 lagun bildu ginen. Lagunak batzuk, zenbait ahaide ere bai. Elkarrekin solastu, elkarrekin bazkaldu. Bazkalondoan, urrunera joan dako bat gogoratu nuen nik, gure laguna. Isilunea egin eta haren berri emanez ozenki aritu nintzen denentzat. Euskaraz, noski, euskaldunak baikinen denak; edota ia denak, kanpotik etorritako bospasei ez gainerakoak. Arratsalde erdian, ilunabartzen hasia, jendea gutika-gutika etxe aldeko bidea hartzen joan zen. Hurrengo arte!, ea noiz elkartzen garen berriz!, eta antzekoak bota genituen, ohi den bezala. Giro onean joan zen egonaldia. Hala uste, behinik behin. Baina, hara non oraindik etxeratu gabeko bakarretako bat hurbildu eta kexu hasi zen: «lotsagarria! hauxe lotsagarria izan dena!» Harritu samarrek gelditu ginen entzun genuenok, zer ote zen, bada, lotsagabeko izan zena. Baina berehala argitu zigun kexaren arrazoia. «Bai, denentzako mintzatu behar, eta euskara hutsez mintzatu! Errespetu falta izan da. Zer erran ote dute ez zekiten horiek!». Eta bai, arrazoi bazuen azkeneko horretan, zeren eta kanpotar haiek ere ez baitziren konforme gelditu. Ondoko egunetan jakinarazi ziguten.

Horrelako edo idurikoa behin baino gehiagotan ikusi dugu gure bizitzan. Erdaldun bat baldin bada gure artean, nahiz eta gainerakoak euskaldunak izan, erdaldunari zor zaion errespetuagatik, erdarara jo behar dugula uste dugu, eta hala egiten dugu gehienetan. Baina, eta non gelditzen da euskaldunari zor zaion errespetua? Hizkuntza jendearen izaerarekin lotua dago. Euskaldunaren izaera ez da erdaldunaren izaera bezain baliotsua? Ez gara ahanzten ahal geure buruaz, ez dugu bazterten ahal geure jendea, eta gure herria.

Hain zuzen, euskaldunoi ez digute errespetu handiegirik ingurukoek: gogoratu agintarien jokaera, erdara hutsezko zerbitzu publikoak, lanpostu publikotarako euskara ez baloratzea, euskararendako dirulaguntza murriztak. Geurok ere ez dugu maitatuko gure izaera?

«Eta non gelditzen da euskaldunari zor zaion errespetua? Hizkuntza jendearen izaerarekin lotua dago. Euskaldunaren izaera ez da erdaldunaren izaera bezain baliotsua? Ez gara ahanzten ahal gure buruaz, ez dugu bazterten ahal geure jendea, eta gure herria. Hain zuzen, euskaldunoi ez digute errespetu handiegirik ingurukoek»

Haur kantak

Mikel TABERNA IRAZOKI «KAPI»

Zuk kantatu diezu haurrei ttikitari? Eta zuri kantatu dizute? Oroitzen?: «Kukurruku! Zer duxu? Buruan min. Nork egin? Axerriak. Non da axeria? Errota azpian. Ze ari da? Arto pixarrak biltzen. Artoa zertako? Oiloari emateko. Oiloa zertako? Arroltzea egiteko. Arroltzea zertako? Apezari emateko. Apeza zertako? Meza emateko? Meza zertako? Zu ta ni ta mundu guzia salbatzeko!» A, zuk bertze modu batera ikasi duzu? Kontatu niri! «Xangolo-mangolo» kanta amari aditu nion lehenbiziko aldiz gure alaba jaiotzearen zenean. Gure nexkatak hilabete batzuk zituela, etzinda sehaskan edo jarrita aulkian, amak haren bi xangoak hartu eta ezker-eskuin gurutzatzen zizkion, dantzaz bezala. Hori egiten zuen bitartean, honela kantatzen zion: «Xangolo-mangolo! Haur hau nongo? Ona bada, guretako; gaixtoa bada, Markalaingo. Ez dutela beharrik, battuztela franko. Orduan? Putzu beheiti botatzeko! ... Ez, ez! Guretako!». Harritu nintzen, ez bainuen ezagutzen. Erran zidan bere sortetxean ikasi zuela, baserrian. Galdetu nion ote zekien non zegoen Markalain herria, eta ezetz erran zidan, ideiarik ez zuela. Familiara nondik etorri ote zen?

Kontu gehiago ikasi nituen gerora kanta horren gainean. Iruñeko Euskalerria irratiauren haurrentzako programak *Xinguli-mangulu* izena zuen, Damaso Intzaren Naparroako euskal esaera zarrak liburutik hartuta. Hark Larraintzar herrian bildu omen zuen. Programaren hasieran emakume batek gure amak bezalatsu kantatzen zuen kanta bera. Hura Eugikoa zela erran zidaten, baina Markalain bizi zela. Gero Azkuek Euskal Herri osoan bilduriko kantekin prestatu zuen *Kantutegia* ezagunean ere harrapatu nuen. Paratzen zuen Oskotzen ikasi zuela.

Oskotz eta Larraintzar ez dira Markalaindik soberra aparte. Iduri du paraje haietakoa izaten ahal dela kanta. Alkaiagara nola ailegatu zen? Misterioa. Edu Zelaieta poetak erraten duen bezala, norbaitek kontrabandoan ekarri izanzen zuen. Orain paketea gure bizkarrean dugu. Gure txanda da. Pasatu ondotik heldu direnei, bidean galdu gabe!

«Alkaiagara nola ailegatu zen? Misterioa. Edu Zelaieta poetak erraten duen bezala, norbaitek kontrabandoan ekarri izanzen zuen. Orain paketea gure bizkarrean dugu. Gure txanda da. Pasatu ondotik heldu direnei, bidean galdu gabe!»

Irakurleak mintzo

Baztandarren Biltzarraren inguruan hausnarketak

Baztandarren Biltzarra Elkartea

Baztandarren Biltzarra Elkarteko kideok, Baztandarren Biltzarra besta eguna eta elkar-
tea beraren gain, zen-
bait hausnarketa egin
ondoren, ondoko pun-
tu hauek ditugu hizpi-
de:

Lehenik eta behin, aurtengo baztandarren inguruan, erran, oro har, balorazio positiboa egiten dugula, baina zenbait aferen gaineko xehetasunak argitu beharrean gaudela: bate-tik, arras konten gaude gero eta baztandar gehiagok orga desfilean parte hartzen duzuela-ko eta era berean, eskerrak eman egunean borondatez lan egiten duzuen guzietan. Baina baita ere, kontzientzia har dezagun bestaren antolakuntza gabe, hau da, antolakuntzan eta laguntzarako jende gehiago egon ezean, BB eguna eta hortaz, karrorarik, bazkaririk... ez lirakeela posible izanen.

Bertzetik, egunean berean egondako gaizki ulertu batzuen inguruan, elkar-
teak bere bar-
kamena adierazten du, elkarteko kideek momentu eta une zehatz batzuetan, beti ere, antolakuntzak suposatzen duen presioak eraginda, erakutsitako modu-

engatik. Baina aldi berean konprenitza es-
katu. Adibiderako ia 1.600 pertsonendako bazkaria antolatu eta biltzeak esfortzu handia suposatzen digu eta ulertuko den moduan «bakan batzuek beren gisara jokatzu» gero, gure nahiaren kontra, tentsio momentu batzuk sortzera garamatza.

Honetaz gain, zabal-
dutako zurrumuru bat-
zuk gezurtatu beharrean gaude. Zurrumuru-
en arabera, elkar-
teak udaletxea ixteko eska-
tu omen zuen. Plaza itxi-
ta egonik, orgen «an-
tzerkietako momentu-
rik ikusgarriena» ahalik eta jende gehienek ikus zezaten Herriko Etxearen parean egitea proposatu genien orgei, udaletxea itxita egon edo ez.

Azkenik, besta egu-
neko gan-torri zerbi-
tzuaren inguruan gure barkamenak zuei, era-
biltzaileei adierazi. Gaiz-
ki ulertu bat dela me-
dio, igande gaueko au-
tobus zerbitzurik ez bai-
tzen izan.

Gauzak honela, Baztandarren Biltzarra eguna eta elkar-
teak urte guzian zehar egiten dituen hainbat ekintza antolatu eta segida izateak zalantza handiak sortu dizkigu, batez ere, momentu hauetan. Arestian aipatu gisara, kideek beren borondatez esfortzu eta lan handia egiten dute. Aurten, ordea, kideetako aunitzek elkar-
tea utziko du-
te eta inor berririk sartu ezean, zalantza horiek areagotu bertzerik ez dira eginen. Orain,



Bota bertsoa

Manolo AROZENA • Neurria: Hamarreko handia

ETAren su-etena

Abertzaleak beti izan du herri lanerako sena baina aitzaki ETA hartuta suntsitu digute dena gure orainak edo geroak beharko du jarraipena batzuentzako gehiegizkoa bestentzat aski ez dena ba su-etena behar bagenun hona hemen su-etena.

Gordean zeuden ilusioak atera dira argira baina urruti jarri behar da herri honen ikusmira erakundetan demokrazia presoak Euskal Herrira lehen urratsa nere iritiz gutxienean hori da guztiok lana egin dezagun datorrenari begira.

inoiz baino gehiago Baztandarren Biltzarrak zuen beharra du!

Kale indarkeria Lekarozen

Nerea ITURRIRIA MEOKI Erratzuko lekautzarrak

Lekauzko bestetan Mutildantzen inguruan jasandako «kale indarkeria» eraso batzuen berri eman nahiko nuke lerro hauen bitartez.

Atsetan, plaza dantzan ari ziren neska-mutilez betia zegoenean, herriko argi publikoa kentzeko ideia zoragarria bururatu zitzaion «kaputxa» gabe zebilen kuadrilla «kontrolatu» bati.

Bizilagun batzuen borondate onari esker, etxeko balkoitik foko bat piztuta, plaza argiztatu eta dantzak kusi ahal izan genituen.

Lotsagarrie! Amorrua eta batez ere tristura eragin zidan «tradizionalista» hauen jokabideak. Zuen printzipioek neskekin dantzatzea eragozten badizuete, atra plazatik baina utzi bertzeoi bestaz gozatzan.

Neskek dantzaten bazuten, txistulariei ez jotzeko eratea erabaki zenuen batzuen artean. Arras demokratikoa!. Jakin dezazuela, esku-
bideak ez direla bozkatzan!

Bertzalde, autoridateen «kondena» eza ere salatu nahiko nuke.

Emakumeok ere gure ondare kulturala mantentzearen alde segituko dugu lanean.

Saran eta bertze herritan berriemaile premian

Ttapi-Ttapa Fundazioa

Urteetan lankide, laguntzaile eta berriemaile izan dugun Xan Harriaguek, lan eta ikasketan aferak direla medio berriemaile lana utziko duela-eta, TTIPI-TTAPAK laguntza eskatu nahi die Sarako harpidedun eta irakurleei: norbaitek irakurle izatetik berrien idazle izatera pasatu nahi badu, irekiak ditu TTIPI-TTAPAKo leihoak, lerro hauen azpiko aldean ageri diren telefono edo helbideen bidez. Saran ez ezik, bertze hainbat herrietako kontuak ere gustura hartuko genituzke. Horretarako gurekin harremanean jartzea aski duzue eta solastuko gara.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Ikasle guztiak klase bakarrean egonda, ttikiek haundiengandik ikasten dute, batez ere, ikasteko ohiturak, klasean nola portatu... eta ttikien azalpenak haundientzat erreparatzeko baliagarriak dira. Gisa honetako ikastetxeetan dena ikusi eta entzuten da (...) Eskulanak, adibidez, elkarrekin egiten ditugu. Bakoitzak bere adinari dagokiona egiten du, baina material berdinarekin».

Carlos BRACO
Legasako eskolako irakaslea
D. NAVARRA, 2010.09.07

«Ni orain oso ondo nago, aurten arazotxo bat izan nuen hasieran, baina zorte txar kontua izan zen (...) Gazte hauen aurka buruz buru jokatzeko ehuneko ehuna eman behar dut. Oso indartsu daude, arinak dira, asko jokatzeko dute eta nik oso ondo prestatua egon behar dut. Datorren urtean, jada 38 urterekin ez dakit nola egonen naizen».

Koteto EZKURRA
Doneztebeko erremontista
GARA, 2010.09.07

11 galdera labur

Nola azalduko zenioke jendeari nor den Xanti Elizagoien?

Etxalarko baserritar bat, herrian barrena ibiltzen dena.

Zein afizio dituzu?

Lana, egun guztian. Eta hortik aparte, juergak ere gustatzen zaizkit.

Herriko bestak ala inauteriak, zein dituzu nahiago?

Lehenbiziko inauteriak eta bestak gero.

Oraindik garaiz bagabiltza ere, pentsatu al duzu hurrengo inauterietako mozorroa?

Ez, momentuan egiten dut hori.

Inoiz jauntzi duzun mozorrorik politena?

Orain dela 40 bat urte emaztekez beztitu nintzenekoa, parejarekin.

Gitarrekin ere ikusia zaitugu

TTIPI-TTAPAN?

Besta gustatzen zait eta...

Urritzokietako auzoko bestan dugu hurrengo saioa.

Sagardo ona egiteko sekretua zein da?

Sagarra ona izatea, eta asmatzea. Ardoa egiten ere saiatzen gara, mahatsa erosita.

Motozerrarekin zerbeza botilak irekitzeko ideia nolatan go-

gotu zitzaizun?

Burgi herrian mutiko bat zerbezak motozerrarekin irekitzen ikusi nuen eta gauzak ikusi eta probatzea gustatzen zait.

Hori egiteko zenbat ordu pasatu dituzu aitzinetik?

Etxean bi proba ttiki egin nituen.

Artikutzan, jendaurrean zerbeza botilak motozerrarekin ireki zenituen lehendabiziko aldia izan al zen?

Etxalarko bestetan egin nuen lehendabizikoa, eta Artikutzakoa bigarrena izan zen. Baina ez nintzen gustura gelditu, motozerra haundiegia zen eta... Eta Urritzokietako bestan bertze saio bat eginen dut. Aritu naizen guztietan motozerra diferentearekin aritu naiz, eta hemendik aitzinera kotxean bat ibili behar dut nirekin.

Zer du Etxalarrek bertze herriek ez dutena?

Usategiak hor daude. Nik nonahi laketzen dut aisa, jendearekin tratatu gustatzen baitzait, baina hemen gustura bizi naiz.



Xanti ELIZAGOIEN → Etxalartarra

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero **KOTXEKO LOREAK OPARI**

Serpentina kanonak baditugu

ESTREA

NARBARTE
T. 948 59 22 00

Kamasterako detaliak, Kamak elizara eta karguak hura eramatei ditugu, Kamak eta berriko landareak, zaharzak, patata salga, herriko landarekin sukera zabala...

Alberto RETEGI

abokatu

© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

Optika

%40

%20

%10

BEHERAPENAK

EGUZKI BETAURREKOETAN

Bidasoa 8 BERA 948 630 753

ZOANSA

SEAT

VW

HYUNDAI

Audi

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banaria, 2 - Alkaiaga industrialdea

LESAKA (samera Beratik)

Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

EKONOMIA

UDALA → NAFARROAKO GOBERNUKO TOKI ADMINISTRAZIO DEPARTAMENTUAK BIDERATU DU

143.860 euroko dirulaguntza hartuko dute eskualdeko udalek

Efizientzia energetikorako eta administrazio elektronikorako izanen da

TTIPI-TTAPA

Krisiaren Kontrako 2010eko Planaren barne, teknologia berrien garapenera eta efizientzia energetikora bideratutako dirulaguntza deialdia egin zuen Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak bere garaian, eta deialdi horren bitartez, 143.859,97 euroko dirulaguntza hartuko dute eskualdeko 23 udalek: Arantza (3.500 euro), Areso (3.500 euro), Baztan (28.000 euro), Bera (18.500), Bertizarana (3.500 euro), Donamaria, Oiz, Urroz eta Beintza-Labaien (3.500 euro), Doneztebe (8.500), Elgorriaga (3.360 euro), Eratsun (3.500 euro), Etxalar (7.500 euro), Ezkurra (3.500 euro), Goizueta (3.997,97), Igantzi (7.500 euro), Ituren (3.500 euro), Leitza (18.500 euro), Lesaka (8.500 euro), Saldias (3.500 euro), Sunbilla (3.500 euro), Urdazubi (3.500 euro) eta Zugarramurdi (3.500 euro).

HERRIA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
ARANTZA	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
ARESO	Herriko argi-fluxuaren murriztailea	4.000 euro
BAZTAN	Udaletxean administrazio elektronikoa paratzeko bigarren fasea	13.500 euro
BAZTAN	Udaletxeko efizientzia energetikoa hobetu	15.000 euro
BERA	Herriko argiteriaren efizientzia energetikoa	10.000 euro
BERA	Udaletxean administrazio elektronikoa paratzeko bigarren fasea	8.500 euro
BERTIZARANA	Administrazio elektronikoa paratu	3.500 euro
DONAMARIA	Administrazio elektronikoa paratu Donamaria, Oiz, Urroz eta Beintza-Labaienen	3.500 euro
DONEZTEBE	Udaletxean administrazio elektronikoa paratzeko bigarren fasea	8.500 euro
ELGORRIAGA	Urruneko Zerbitzu Zentroan sartu eta web orria argitaratzea	3.360 euro
ERATSUN	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
ETXALAR	Herriko Etxea eta eskola zaharretan	4.000 euro
ETXALAR	Gizarte informazioa eta administrazio elektronikoa paratu	3.500 euro
EZKURRA	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
GOIZUETA	Herriko argiteria zaharberritu eta hobetu	3.999,97 euro
IGANTZI	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
IGANTZI	Eskolako lehiak aldatu	4.000 euro
ITUREN	Administrazio elektronikoa paratu	3.500 euro
LEITZA	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	8.500 euro
LEITZA	Gizarte eraikina zaharberritu	10.000 euro
LESAKA	Udaletxean administrazio elektronikoa paratzeko bigarren fasea	8.500 euro
SALDIAS	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
SUNBILLA	Administrazio elektronikoa paratu eta herritarren zerbitzua hobetu	3.500 euro
URDAZUBI	Administrazio elektronikoa paratu	3.500 euro
ZUGARRAMURDI	Administrazio elektronikoa paratu	3.500 euro
GUZTIRA		143.859,97 euro

LANA

Abuztuan ere %6,87 egin du goiti langabeziak eskualdean

TTIPI-TTAPA

Uda denboraldia langabeziak beheiti egin duen garaia izaten da normalean. Baina, iaz bezala, aurten ere ez da halakorik gertatu eskualdean. Uztailean ekainean baino 18 langabe gehiago izan ziren eta abuztuan ere kopurua nabarmen haunditu zen (71 langabe gehiago). 1.105 lagunek emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan, uztailean baino %6,87 gehiagok. Doneztebeko Bulegoaren bidez, 387 kontratu egin ziren abuztuan, baina horietatik 24 izan ziren mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeetan somatu zen igoerarik handiena (430etik 492ra igo zen) eta adin horretako emakumeetan 481etik 489ra igo zen. 25 urtez beheitiko gizasemetan, 82tik 81era jautsi zen eta emakumeetan 41etik 43ra igo. Lan arloei dagokienez, zerbitzuen arloak dauka langabe gehien, eta abuztuan igo egin zen (588tik 604ra). Halere, Saverako erregulazioaren ondorioz, industriari somatu zen igoerarik handiena (265). Eraikuntzan ere goiti egin zuen langabeziak (149); nekazaritzan jautsi (19) eta aitzinetik lanik egin ez zutenak 68 ziren abuztu hondarrean, uztailean baino 1 gehiago.



BERRANDONA, I.L.L.
FRUITAS DE SA BARRANDONA

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA



saroha
psicología clínica

Pl. de Estegosa 25 bajo 1948630899
48700 BERRANDONA www.sarobe.net

OSPAKIZUNAK → LABIAGA IKASTOLAK ANTOLATUTA

Lore Jokoen barne hainbat ekitaldi izanen dira asteburuan

Horrez gain, Dantzari Ttiki Eguna eginen da larunbatean

TTIPI-TTAPA

Labiaga Ikastolak eta herriko hainbat eragilek Lore Jokoen antolatutako dituzte ortzegun honetatik igandera:

IRAILAK 16, ORTZEGUNA

• Karmele Jaioren *Zu bezain ahul* liburuaren irakurketa aktiboa Gure Txokoan (17:00-20:00), Euskara Mankomunitatearen eskutik.

IRAILAK 17, ORTZIRALA

• Mirari Bereziartuaren hitzaldia: *Euskal Herria estatuaren euskal eskola nazionala* liburutegian (20:00), Labiaga Ikastolaren eskutik.

IRAILAK 18, LARUNBATA

• Joan M^a Beltranekin euskal tresnen kontzertua Altzateko Plazan –eguraldiona– edo Kultur Etxean –euria– (18:30), Labiaga Ikastola eta Kultur Batzordeak antolatuta.

IRAILAK 19, IGANDEA ERROMERIA EGUNA

• Patata tortilla lehiaket

ta (11:30-12:30). Izena emateko Xuga, Errekalde eta Ikastolan.

- Kale animazioa Musika Eskolako trikitilarietara.
- Bertso poteoa (12:30).
- Ikastolako bazkaria (14:00).
- Joseph and John-en ikuskizuna Alzateko frontoian: *This is the Basque Country*.
- Dantza herrikoiak Gure Txokoakoeekin.
- Arratsalde osoan musika eta kale animazioa Lesakako trikitilarietara. Igandean, baserriarrez jantzeko deia egin dute antolatzaileek.

Dantzari Ttiki Eguna

Aurten XVI. aldiz Dantzari Ttiki Eguna eginen da larunbat honetan, Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta. 10:30etik aitzinera Euskal Herriko hainbat dantzari gazte txo herrian ibiliko dira.

Vila profesioaletan

2011n txirindularitza profesionalera itzuliko da Patxi Vila. 18 hilabeteko zigorra bete ondotik, talderik gabe egon da, baina heldu den urtetik aitzinera, Italiako Ceramica Flaminia taldean ariko da.



ARGAZKIAK: ANTON ERKIZIA

Joan dira Agerrako bestak

Bertze urte batez Agerrako auzotarrek antolaturiko bestak giro ederrean joan dira. Zozketa ere egin zen egitarauaren barne, eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: 0548 zenbakia (Pikabea Harategian saldua); 0955 zenbakia (Manolo ferretarian saldua); eta 1.280 zenbakia (plazan saldua). Lerro hauen bitartez, auzotarrek eskerrak eman nahi izan dizkiete lagundu dieten guztiei: denda, komertzio, enpresa ttiki... Baita Udalari eta zozketarako txartelak saltzen aritu diren eta erosi dituzten guztiei ere. «Besta hauetan lanean eta parte hartu duzuen guztiei. Zuentzat egiten dira bestak eta zuek gabe bestarik ez legoke».



ARGAZKIA: TELLETXEA

Realak irabazi du Jon Irazoki eta Unai Zelaietaren omenez jokatutako lehia

Jon Irazoki gogoan urtero egiten den memoriale berezia izan da aurten. Izan ere, Genaro Taldeak proposatuta, egun berean Unai Zelaieta zena ere omendu zen, trafiko istripuz hil zenetik 10 urte bete direlako. Matxada futbol-zelaiari jokatutako lehia triangularra abuztuaren 28an eta Gure Txokoa eta Lesakako Beti Gazteko talde nagusiak eta Realeko jubenilak aritu ziren jokoa. Beti Gazte eta Gure Txokoaren arteko partidari, etxekoek 2-1 irabazi zuten. Real eta Beti Gazte jokatu zutenean, 2-1eko markagailuarekin donostiarren aldera joan zen garaipena. Real eta Gure Txokoaren arteko azken lehiari Gipuzkoako taldeak irabazi zuten, 0-2.



Goiko «bihotzeko» argazkilari

Oraingoan, bihotzeko aldizkari argazkilari bilakatu da Martin Goikoetxea Goiko. Espainiar estatuaren gertakariak erreportaje zabala eskaini dio Alvaro de Marichalar aristokrata eta abenturazalearen eta Ekaterina bere andregaiaren arteko ezkontzari. Hain zuzen, irailaren 25ean ezkonduko dira eta bikotearen argazkiak Goikok egin ditu, Marichalar berak hala eskatuta. Aldizkari portadari agertzen denaz gain, formatu handiko bertze 22 erretrato argitaratu dizkiote Goikori, 15 orrialdetan banatuak.

elika
Dietetika eta elikadura

- Albulantzia dietetiko eta nutrizionala
- Dieta personalizatua
- Gintza berrikuntza
- Elkarrekin
- Elkarrekin

Isar Andueza Larra
Izasa, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

LESAKA

LANA → KASIK URTE ETA ERDI ERE-AN IZAN ONDOTIK

Zalaingo lantegiak ez du Erregulazio Espedientea gehiago luzatuko

Lan kargaren aurreikuspena hobetu dela jakinarazi die zuzendaritzak langileei

Aitor AROTZENA

2009ko maiatzaren 25etik 2010eko irailaren 30a bitarte Lan Erregulazio Espedientepean daude Condesa taldeko Zalaingo fabrikako langileak. Kasik urte eta erdi eman dute egoera horretan, baina espediente ez dela gehiago lu-

zatu jakinarazi die zuzendaritzak langileen ordezkari, «urte bukaera bitarte lan kargaren aurreikuspena hobetu delako». Langileek baikortasunez hartu dute berria, duela urte eskas 303 langileetatik 140 kalera-tzeko espedientea proposatzekotan baitzegoen lantegia. Aukera horren kontra protestatzeko, Zalaingo langileak Gasteizera joan ziren iazko irailean, Condesa taldeko egoitzaren aitzinean protesta egiteko. Aurtengo otsailean ere, bertze mobilizazioen artean, manifestazioa egin

zuten Zalaingo lantegitik Berako plazara. Azkenean ez zen kaleratzerik izan, Langileen Batzordeak eta zuzendaritzak akordio bat sinatu baitzuten martxoan, lantegiaren bideragarritasuna onartuz. Halere, langileei modu ezberdinean eragin dien EREekin segitu dute. 2004an 480 langile zituen Zalaingo lantegiak eta gaur egun 300 inguru ditu. Langileen Batzordetik aipatu dutenez, «berri ona da, baina orain ikusi beharko dugu urte bukatu eta 2011 urtean merkatuak duen bilakaera».



UTZITAKO ARGAZKIA

Alejo Sarobe eta Bixente Igartzabal bikain ibili dira uda honetan ere

Abuztuaren 15ean jokatu zen Embrunman triatloi luzean (3,8 km igerian, 188 bizikletan eta maratoia lasterka) bikain ibili ziren Beti Gazteko Bixente Igartzabal eta Alejo Sarobe. 898 parte-hartzaileen artean 37. postua eskuratu zuen Bixentek, 11 ordu, 33 minutu eta 51 segundo lanean aritu ondotik. Alejo 320. postuan sartu zen, 13 ordu, 43 minutu eta 35 segundoko denborarekin. Aitzinetik, uztailaren 16an, Altriman proba gogorrean ere parte hartu zuten. Sarobek meritu handiko 31. postua lortu zuen, 15 ordu, 58 minutu eta 25 segundoko saioaren ondotik. Igartzabalek, aldiz, ez zuen proba bukatzerik izan, bizikletako saioa laugarren bukatu ondotik.

Mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Beti Gaztek igande honetarako

A.A.

Beti Gazte elkarteak antolatutako BTT ibilaldia irailaren 19an egingen da. Igandean 09:00etan abiatuko da froga ez lehiakorra, baina izen-ematea 08:00etatik 09:00etara egiten ahal da plazan. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek

15. Aurtengoan hiru ibilbide izanen dituzte txirindulariek aukeran. Luzeenak 50 kilometro izanen ditu, 1.700 metroko desnibel positiboa eta zailtasun erdi edo altukoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Bigarren ibilaldia 32 kilometrokoa izanen da eta hirugarrena 28 kilometrokoa.

Artearen Txokoa Beti Gazten

Santiago Jorge margolariaren eskutik *Artearen Txokoa* izanen da ikasturte honetan Beti Gazten, nahi duen guziri zabaldua. Astelehenean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 14:00etara izanen da.

Kulkiren jokoak irailaren 29an

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, Kulkiren jokoak ekarriko ditu Tantirumairu Ikastolak aurtien ere. Irailaren 29an izanen da hitzordua 16:30ean ikastolako patioan (euria egingen balu udal pilotalekuan) eta bi orduz baserriko jolasak izanen dira.

AZKEN DENBORALDIKO ZAPATAK

PARE 1:

10€

2 PARE:

15€

3 PARE:

20€

IRAILAREN 18an, Lesakan OINETAKOEN MERKATUA

Goizeko 10:00-20:00 (eguerdian itxi gabe)

MENDIA → MANTTALE TALDEAN ARI DA

Iñigo Lasaga lasterkalariak hainbat sari irabazi ditu

Euskal Selektzioak deituta, Euskal Herritik kanpo ibili da

Irune eta Itsaso

Iñigo Lasaga Manttaleko korrikalaria gogotik ari da mendia lasterketetan. 2006ean hasi zen karreretan eta geroztik hainbat sari irabazi ditu. Joan den urtea izan zen lasterketa gehien irabazi zituena. Nafarroako Kopan txapelduna izan zen, Zumarraga-Urretxu mendia lasterketan lehen, Etxarri-Aranazekoan irabazle eta berak erran duenez, ilusio gehienegina ziona etxe ondoan jokatutako Sarako Kontrabandisten lasterketa irabaztea izan zen.

Aurten, berriz, Berako Erdi Maratoian 6. akautu zuen eta Isabako Camile Extremen 15.. Orain udazkenean, Olazagutiako lasterketan eta Etxarri-Aranazekoan parte hartu nahi du. Euskal Selektzioak deituta Munduko Kopan ere parte hartu du. Maiatzean Zegama-Aizkorri maratoian 11. egin zuen, ekai-

nean Portugalen 9., abuztu hasieran 7. gelditu zen Frantzia eta Italiako mugan jokatutako lasterketan eta abuztu bukaeran 4. izan zen Italia eta Suitzako mugan. Igandehonetan, hilak 19, berriz ere lasterketa du Italian.

Hori bai, maila hau mantentzeko astean bozpasei egunez gogor entrenatu behar du eta aunitz sakrifikatu, baina merezi du horrelako mailara iritsita. Animo Iñigo!

Bestak Urritzokietan

Aurten ere ilusio handiz prestatu dituzte urritzokietarrek auzoko bestak.

IRAILAK 14, ASTEARTEA

- 11:30ean meza Santa Krutz ermitan.
- Ondotik auzotarrek eskaintako hamaiketakoa.
- 18:30ean txokolatada Sainduneko zubian.



ARGAZKIA: LOREA AGIRRE
Iñigo Lasaga mendian goiti lasterka.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

74 neska-mutikok hasi dute ikasturtea

Uda akautzearekin batera, haurrak eskolara bueltatu dira. Ikasturte honetan zazpi haur berri hasi dira: Ane Arburua Iturria, Aitor Azkarraga Fernandez, Daniela Calvo Aranzadi, Manex Danboriena Ibarra, Amaur Elizalde Mitxelena, Enaitz Perez Mancho eta Robert Marco Petra Stinea. Azken urte hauetan Landagain Eskolan izan den ikasle kopuru handiena da aurtengoa. Denetara 74 ikasle dira, eta 14 irakasle. Aurtengo berrikuntza nagusia zortzigarren gela martxan jartzea izan da.

IRAILAK 19, IGANDEA

- 11:30ean Meza Nagusia Santa Krutz ermitan.
- 12:30ean trikitilarietako auzoa zeharkatuko dute kalejira joz.

- 14:00etan asaua Sainduneko zubian.
- Bazkaldu ondotik mus eta partxis txapelketa.
- 17:30ean jokoak: kautzu jaurtiketa, zaku lasterketa, zapel botatzea.

- Ondotik erakustaldi sorpresa.
- Gero, sari banaketa
- 18:30ean dantzaldia trikitilarietarako.
- 20:30ean afaria.
- Afalondoan trikitilariak.

ALVARO LOPEZ
Eskaloia, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

IRU BIDE
Estrategia - Asaltu
Berriz (B.S.) 31111 Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABAL
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESAKA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidassoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

GOOZ-AIDE
LAVANDERIA
Berriz (B.S.) 31111 • LESAKA

ARANTZA

HEZKUNTZA → 2010/2011 IKASTURTEA

49 ikasle eta 8 irakaslerekin hasi da ikasturte berria eskolan

Guraso
Elkarteko juntan
hiru ordezkari
berri izendatu
dituzte

Nerea ALTZURI

Inguruko ikastetxe aunitzetan bezala, herriko eskolan joan den astean hasi zen ikasturte berria. Irailaren lehenan maixuak lantokira itzuli baldin baziren ere, eskolako umeak irailaren 6an hasi ziren.

Aurten 49 ikasle daude eta Eneko Zulaika Iturria 3 urteko ikasle bakarria hasi da eskolan. Gainerakoan, lazko sei irakasleez gain, Nerea Alejos irundarra eta Aitor Elexpuru bizkaitarra irakasle berriak batu dira taldera.

Hilabete honetan goizez bakarrik izanen dute eskola eta jantoki zerbitzua ere joan den astetik dago martxan.

GURASO ELKARTEA

Eskolako Guraso Elkar-



ARGAZKIA: KOLDOBIKE GOROSTIZAK UTZITAKOAK

Pelettiki Haur Eskolan ikasturtea hasi duten lau neska-mutikoak Koldobike arduradunarekin. Ezkerretik hasita, Koldobike, Oier, Maddalen, Iraide eta Kattin. Beranduago Asier, Elene eta Haizea hastekoak dira.

teko junta irailaren 3an berri izendatu zen. Ikasleen guraso guztiak bilerara deituak izan ziren batzordea berritzeko eta bertze gaietaz solasteko. Gutti bildu baziren ere, juntako hiru ordezkari berri aukeratu ziren. Bozkatuenak Fabiola Taberna, Pili Larretxea eta Maixe Oskoz izan ziren. Horrela, bi urtez juntan egon diren Beatriz Taberna, Josune

Otxandorena eta Koldobike Gorostiza ordezkatu dituzte.

Lehendakari, eskola kontseiluko eta ikasleen ordezkari karguak nork beteko dituzten hurrengo asteetan erabakiko da.

Hiru ordezkari berriez gain, Sonia Iturria, Beatriz Iparragirre, Pili Telletxea eta Arantxa Otegi juntako taldean mantenduko dira.

PELETTIKI HAUR ESKOLA

Pelettiki Haur Eskolako lagunak ere ikasturtea abiatu dute. lazko Maddalen eta Kattinek Iraide eta Oierrekin jostatzeko eta gauza auzeratu egiteko aukera izanen dute aurten, azken bi neska-mutikoak haur eskolan hasi baitira. Beranduago Elene, Asier eta Haizea ere eskola taldekoak batu dira.

FLASH

Ehiza denboraldia

Urteroko hitzordua ehiztariek tenore honetan izaten dute. Bilerak udan izaten dituzte eta Bagatxar eta Ekaitzako postuak txukuntzeko auzolanak egin ondotik, ehiza saioerako prest dira. Guztira 200 ehiztari inguru daude herrian. Hemendik aitzinera, beraz, mendi gainak populatuagoak egon diren dira.

600.000 euroko bermea landetxe bat egiteko

600.000 euroko bermea eman du Nafarroako Gobernuak, Arantzan landetxe berri bat egiteko. 1.068.814 euroko inbertsioa eginez, zortzi logela eta 16 lagunentzako lekua izanen lukeen landetxea eraikitzeko onartu du. Aiantzan eraiki nahi da, Patzikurenborda baserrian. Iragarri dutenez, lo egiteko tokiaz gain, ostatua eta gosaria ere eskainiko dira, baita mendi ateraldiak egin ere, eta Donibane Lohizunen itsasontziz ibilaldiak antolatzeko asmoa ere omen du jabeak.



HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

62 neska- mutikok hasi dute ikasturte berria eskolan

Horietatik 13
ikasle berriak
dira

Itxaso ARRIETA

Udako oporrak akitu, eta joan den astean hasi zuten ikasturte berria neska-mutikok. Guztira 62 ikasle dira aurten hasi direnak, eta horietatik 13 lehenbiziko aldiz joanen dira eskolara: hiru urteko hamar, lau urteko bi eta Lehen Hezkuntzako lehen-dabiziko mailan berte bat.

Mikel Bastante, Naroa Petrirena, Unax Larraburu, Uxue Ibarra, Aitor Igoa, Uxue Ar-

mendariz, Ahielen Iratzoki, Ane Zelaieta, Jon Ibarra eta Hodei Gastesi dira hiru urteko hasiberriak; lau urteko berriak Joakin Jimenez eta Jose Migel Neacsu dira eta Jose Luis Neacsu lehen-dabiziko mailan hasi den berria da.

13 SARTU ETA SEI KANPORA

Herriko eskola utzi dutenak, bertalde, sei lagun izan dira. Horietatik bortz DBHko lehen-dabiziko maila egitera joan dira herrikanpo eta bertzea Lehen Hezkuntzako sei-garren maila egitera.



**BORTZIRI
UNSION ANIAK**
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Laugarren errepide mozketa «mugitua»

Ekainean hasita laugarren aldiz, bidegurutzeari irtenbide duina emateko eskatuz errepidea moztu zuten herritarrek irailaren 9an. Ordura arteko mobilizaziorik mugitue-na izan zen, ia ezbehar bat gertatu zelako. Aitzineko aldietan, tunela baino lehen Guardia Zibila jarri ohi zen, ibilgailuei abiadura moteltzeko eskatuz, baina azkenean ez zuen hala egin eta kamioi batek bertze norabidera sartu behar izan zuen gelditzeko. Horrez gain, Guardia Zibilak trafikoa herrira sartzeko edo herriatik ateratzeko errailetan barna desbideratu zuenez, ezin erran erabateko mozketa egin zenik. Irailaren 7an, bertalde, Doneztebeko IAT estazio berriaren inaugurazioa zela-eta, Nafarroako Gobernuko presidentea, hainbat kontseilari eta bertze agintariak bertan zirela aprobetxatuz, berriz ere protestan joan ziren herritarrek. Inaugurazio ekitaldi osoan hantxe egon ziren, errepidearen bertze aldean. Baina inaugurazioa akitu eta pankartak biltzen ari zirenean, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria hurbildu eta Miguel Sanzekin inprobisatutako bilera bat egitea proposatu zien Pako Errandonea alkateari eta zinegotziei. Hamar bat minutuz solasean aritu ziren Gobernuko ordezkariekin eta alkateak TTIPI-TTAPA-ri aipatu dionez, «hurrengo Errepide Planean sunbildarren eskariak kontuan hartuko direla» erran omen zien Sanzek. Herritarrek eskatzen dituzten bi proposamenen artean, irteera errepide nagusiaren gaineko aldetik egitearen alde agertu omen zen Sanz. Presidenteak hori agindu ondotik irailaren 9koa azken mozketa izan zitekeela aitzineratu zuen alkateak, baina oraindik ez dago batere garbi.



ARGAZKIA: ITXASO ARRIETA

Labaderoa berritua

Elektrizitate lanaren faltan, labaderoa berritzeko lanak akitu dira. 30.000 euroko aurrekontua izan dute eta diru hori Udalaren eta Nafarroako Kutzaren *zuk aukeratu*, *zuk erabaki* ekimenaren bidez lortu da. Alde batetik, teilatua berritu da, eta bertetik, barruko aldea zaharberritzeaz gain, kanpoan aska berria egin da. Joan den urtean, Mankomunitatearen bidez, ezintasunak dituzten langileak aritu ziren iskin harriak paratzen, eta uda honetan herriko bozpasei jubilatatu aritu dira lanean, Pako Sanzberroren gidaritzapean. Ura martxan paratzea da orain falta dena, eta hori bonba batekin eginen da.

BORTZIRIAK

GIZARTEA → BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN EGUNA

Hogei urte bete dira mankomunitatea sortu zela

Urteurrena aitzakia hartuta, urriaren 31n Beran Mankomunitatearen eguna izanen da. Pello Apezetxea, Bittori Telletxea eta Mikel Legarrak gogoeta egin dute garai hartaz

TTIPI-TTAPA

Nolako giroa zegoen euskararen inguruan Mankomunitatea sortu aitzinetik?

Pello Apezetxea: Euskararen aldeko sentimendua bazen. Diktadura denboran askatasuna eta euskara debekatuak egon baitziren, hura akabatzean lehertze gisako fenomeno gertatu zen, debekatuak egondakoen aldekoa, eta, neurri batez, haiek berreskuratu nahia. Biztanleriaren sektore batena, noski.

Ikastolak sortu ziren, eta horrek jende aunitz euskara munduan sartzera bulkatu zuen. Andereñoen lana ordaintzeko ere, Diputazio eta Udalen dirulaguntza urri gelditzen zen. Diru gehiago eskuratzeko eta toki eta materialea egokitzeko, ikasleen gurasoek lan egin behar izan zuten, eta gogoz egin zuten, ikastolak aitzinera eramateko. Hainbat gauza antolatzen zuten herritarren laguntza eskatzeko, horrela jende gehiago interesatuz euskararen alde.

Euskara ikasteko edo eta hobetzeko klaseak ematen hasi ziren, gau eskola izenarekin, lehenbizitik. Euskaltegi izenarekin ge-

ro, Bortzirietako irakasleak bildu eta presatze lanetan lagunduz, eta ikasleak erakartzeko kanpainak antolatuz. Lehenengotan nahiz gerokoetan, jendearen gogoia ikusi zen, eta taldeak sortu ziren.

Euskararen aldeko erabaki berezia izan zen eskoletan D eredua sartzea, haurrak elkarrekin erdaraz aritzetik euskaraz aritzera eraman baitzituen.

Fenomeno hauek jendeak zuen sentimendua, kontzientzia eta gogoia erakusten digute. Baina, denbora berean, euskaraganako kontzientzia hori indartzen lagungarri izan zirela uste dut. Bide horretan sartu behar genuke TTIPI-TTAPAren sorrera ere, lehenengo urteetan maiztasun tikiagorekin, 1990ean hamabortzekari bihurtu zena.

Bittori Telletxea. Gizartearen euskararen aldeko giroa bazegoen eta gogoia ere bai, gabezia handia sumatzen zelako. Bortzirietan zaila zen edozein udaletara edo erakundeetara euskaraz jotzea. Presentzia eskasa zuen euskarak gizartearen hiru hilabeteetik TTIPI-TTAPA ateratzen zen, Euskaltegia martxan jarri zen... Administrazio aldeetik sumatzen zen zerbait egiteko beharra eta jendearekin Euskararen gaiak lehentasuna hartu zuen.

Erraten ahal dugu 1983en Nafarroa Oinez izan zela Beran eta ondotik kultur giroa ere zabaldu zela, euskarari lehentasuna emanez. Euskaltegiak eragin handia zuen, elkarteak eta bertze erakundeak ere bai eta giro horretan eta 1987ko hauteskundeetan ondotik, zerbait egiteko beharra zegoela nabarmentzen da. 1988an hasi ginen seriozki Euskararen aldeko azpiegitura antolatzen eta azkeanean alde batetik gizartea eta ber-



Bittori Telletxea eta Pello Apezetxea.

tzetik administrazioak bat egin zuten, hautetsien eraginez noski, eta hainbat bilera, proposamen eta lanen ondotik Bortzirietako Euskara Batzordea osatu zen lehenbizitako Arantzako Udalen eskutik eta azkenean Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Estatutuak 1990eko maiatzean onartu ziren.

Bi urte eman genituen lehenagotik bitzen, eztabaidatzen, lantzen... bilera jendetsuak izaten ziren eta arlo aunitzetako jendea hurbildu zen: irakaskuntza, zerbitzuak, elkarteak, hautetsiak, eliza... baina inoiz ez genuen pentsatu ere horrelako antolakuntzarik emanen zenik.

Mikel Belarra. Euskara egoera kaxkarean zegoen. Tresna instituzionalak, ekonomikoak eta antolaketa-zakoak falta genitu-

INGELESA eta FRANTSESA, IRUNEN

- Haur, gazte eta helduentzat
- Astean behin edo bi egunetan
- Cambridge-eko azterketen prestaketa
- Enpresentzako ikastaroak

LACUNZA

irunen: jose ramon agirretxe, l
donostian: erdialdean, amaran, grosen, benta berrin

902 012 912 www.lacunza.es



en. Euskararen eta euskaldunen autoestima eskaxa zen gizartean, euskararen erabilera murrizten ari zen kalean eta zerbitzuetan. Gainera, biztanle gutxi, 5 herritan banatuak eta aurrekari gutxi nondik jo jakiteko.

Bestalde, batzuk euskararen aurka lanean eta euskaldunak-euskaltzaleak oso banatuta, bakoitzak bere bideak lehenetsi nahian. Gaur bezala gutti gora behera.

Tresna oso garrantzitsua lortu zen politikoki, sozialki eta ekonomia aldetik, batasuna eta oreka lortu zelako. Garrantzitsua zen (eta da) euskararen gaian, DENAK egotea eta eguneroko politikatik kanpo dagoen zerbait izatea.

Behin osatuta, nola baloratzen duzu Mankomunitateak hartu zuen bidea?

Pello Apezetxea: Bortzirietako Mankomunitatea 1990ean legeztatu baldin bazen ere, bere sortze eta hastapena lehenago-

koa dela erraten ahal dugu. 1980. hamarkadako azken urteetan euskalgintza eta ikas-tetxeko jende multzo handiak, Udalen babes osoarekin, hainbat bilkura egin zuen, Bortzirietako euskararen egoera hobetu beharraz ohartuta. Bilkura haietan adierazi zen azterketa soziolinguistikoaren beharra, euskararen egoeraren berri xeheagoa eskuratzeko. Udalek bere gain hartu eta Siadeko elkarteari eskatu zioten. 1989an bukatua zegoen. Bilkura horietan, euskararen egoera normaltzeko zer egin ikusten joateko, talde batzuk plantatu ziren, irakaskuntza, administrazio eta bertze arloak aztergai hartuta. Bortzirietako Euskara Batzordea izena eman zitzaion taldea ere martxan paratu zen, borts herriak euskararen inguruan elkarturik, beraren egoitza Arantzan kokatu, eta baita Koordinatzaile bat hautatu ere, gaur egun Teknikari deitzen dugunari dago-kion lana betetzeko.

Mankomunitatearen osaketa modua hagitx garrantzitsua da, eta solasbide franko izan zuen. Hiru batzorde mota ditu Mankomunitateak: 1.- Batzorde Erabakitzailea, izenak dioen bezala erabakiak hartzen dituen. Udalbatzarretako partaideak dira, eta Udal bakoitzak hautatutako ordezkariak dira. 2.- Aholkularitza Batzordea, erabakitzaile bezala 7 partaidek osotzen dutena, herrietako Euskara Batzordeek hautatuak. Erabakitzaileari aholkuak eskaintzen dizkio. 3.- Borts herrietako Euskara Batzordeak, euskaraz interesatzen den herriko edozein erakunde edo jende partaide dituen. Herriko euskararen egoeraz arduratzen da. Egitura hau aski egokia dela uste dut, legeak paratzen dituen mugak kontuan hartuta. Batzorde Erabakitzailean, udalbatzarkideez gain euskalgintzako jendea sartzea nahi izan genuen, euskararen aldeko jarrera ziurtatzeko, baina legez ezinezko da.

Mankomunitateak hartu zuen bidea laburki ikusteko, 1990eko plangintza eta aurrekontua gogoratzen ahal ditugu: 1.- Euskararen kanpainak, 2.- Euskararen Udal Ordenantza, 3.- Azterketa soziolinguistikoan oinarrituz bideratu beharraz hainbat lan.

4.- Euskararen neurketa. 5.- Zenbait dirulaguntza ematea euskararen alde lanean ari diren taldeei. 6.- Euskal langileria euskalduntzeko eta alfabetatzeko plangintza. Ikuspegi nahiko zabala ageri da planteamendu honetan, aitzinera urratsak emateko.

Bittori Telletxea. Mankomunitateak hasieran hartutako bidea segitu du: Euskara babestu eta garatzeko bidea. Izugarriko aurrerapausoa eman da 20 urte hauetan eta Mankomunitatea beharrezkoa tresna da. Arront egokia iduritzen zait eta gainera eredugarria dela ezin da ukatu.

Euskalgintza motorra izan zen orduan eta orain ere garrantzi berezia hartu behar luke, Mankomunitate eraginkorra berreskuratzeko, gelditzen zaigun bide luze honetan, Euskarak adostasuna, indarrak batzea eta lehenetsia ematea behar du.

Gogorra da, Bortzirietan hautetsi guztiak euskararen aldekoak direla erraten dutenean eta gero Mankomunitatea behar bezala hornitzeko arazoak izan dezaketela ikustea. Baina oraingo etapan horrela gertatzen ari da eta zaila da onartzea eta konformatzea.

Beraz, urtemuga hau ospatzea derrigorrezkoa dela erran genezake, euskalgintzaren aldetik prest egon behar dugula bederen akuilu bezala aritzeko, dena ez delakoz berteen eskuetan utzi eta gu lasai-lasai galditza. Mankomunitatea osatu zenean euskalgintzak lan handia egin zuen eta orain ere horrela egin beharko da, Gizartearen presioa sumatu nahi nuke.

Mikel Belarra. Bortzirietara kanpotik begiratuta esan liteke pribilegiatuak zaretela Mankomunitatea bezalako tresna bat izatean. Derrigorrezkoa da tresna horri etekina ateratzea, beste eskualde askotarako eredugarri ere izan daitekeelako. Garrantzitsua iruditzen zait gestioan ari direnek formakuntza, ahalmena eta intentzio aldetik prestatuta egotea, sozial eta udal-talde guztien erosotasuna, inplikazioa, lankidetzeta eta konplizitatea bilatu eta garantizatzen.

Sistemas de Oficina del Bidasoa S.L

- **Zerbitzu teknikoa / Servicio técnico**
- **Kontsumibleak / Consumibles**
- **Multifuntzioak / Equipos multifunción**
- **Ekipo informatikoak eta sareak / Equipos informáticos y redes**

Canon
Centro Canon Autorizado



Santiago kalea, 7 • 20304 - IRUN • 943 631 818 • info@cbc-bidasoa.es

DONEZTEBE

GIZARTEA → OBRAK

Eguneko Zentroaren lehen faseko lanek aitzinera segitzen dute

Gobernuko ordezkariak lan hauek eta futbol zelaia egin nahi den eremua bisitatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Adinekoren Eguneko Zentroaren lehen faseko lanek aitzinera segitzen dute eta hauek ikustera joan zen irailaren 7an Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea. Proiektu hori egiteko Gobernuak 550.569 euro bideratu ditu, aurrekontuaren %71, hain zuzen (aurrekontua 770.763 eurokoa da).

Sanzez gain, Maria Isabel Garzia Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria eta Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria ere ekitaldian izan ziren, baita Miguel San Migel alkatea eta Felipe Ganboa Arkupeak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Eguneko Zentrura bisita egin zuten irailaren 7an Nafarroako Gobernuko ordezkariak.

elkarteko presidentea eta Joxe Oronoz eta Eusebio Maritoren elkarte-kideak ere, proiektua egin duten arkitektoekin batera.

Eguneko zentroa Aranzoko bidean dago, 6.115,73 metro koadroko lursail batean. Lurra Arkupeak elkarteara zen, baina gaur egun erretiratuak duten egoitzarekin trukatu zuen Udalak. 25 lagunentzako lekua dago (60 ere har ditzakete) eta, gainera, Arkupeak elkartearantzat tokia ere utzi dute.

Obrak bifasetan daude antolatua eta orain lehena dago abian; fase horretan sartzen dira zula-lanak egitea, euri uren eta ur zikinaren instalazioak egitea eta zola

eta egitura jartzea. Marietzurrena enpresa ari da eraikitzen.

Etxabearen egonen dira sarbidea eta atsedan lekuak (ataria, harrera lekua, egongela, jantokia, komunak, sukaldia, biltegia, administrazio bulegoak eta zerbitzu eremua) eta lehen solairuan profesionalen bulegoak: psikologoa, erizaina, medikua, fisioterapeuta eta okupazio terapeuta. Gimnasioa eta komunak ere paratuko dituzte.

FUTBOL-ZELAIA

Belar artifizialeko udal futbol-zelaia paratuko den lursaila ere bisitatu zuten Gobernuko ordezkariak, Aparan inguruan. Futbol-zelai hori Doneztebe eta inguruko udalerrietakoentzat ere izanen da: Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubieta.

Momentuz, 2011rako dirulaguntza protokoloa sinatua dute Udalak eta Gobernuak eta 2011n

450.000 euroko subentzioa hartuko da. Urte hasierarako 1,3 milioi inguruko aurrekontua izanen duten lanak ematea espero dute.

160 lagun ari dira futboleko Doneztebearen izenean eta etxeko partidak Uhartan edo Taxoaren jokatu behar izaten dituzte. Aurten, gainera, lehen aldiz futbol-11n jokatu duen nesken taldea ere aterako dute.

Besta tikiak

Aitzinekoan iragarri bezala, asteburu honean beste tikiak izanen da. Ortziralean, 19:30ean pintxoak izanen dira eta 20:00etan txupinazoa botako da. 22:00etan Gazte Burrenbarren afaria egingen da eta ondotik kontzertuak izanen dira. Larunbatean, berriz, 14:00etan paella eta tortilla lehiaketa egingen da eta ondotik bazbilla. 16:00etan mus txapelketa jokatu da eta arratsaldean eta gauean Jalisko Bandekin dantzaldia izanen da.



Pertsonaia

Koteto EZKURRA

Buruz buruko hamargarren txapela jantzi du

Herritarren arteko lehia izan zen irailaren 4an Galarretan, Kursaal Kasinoaren txapelketaren finalean. Koteto Ezkurra beterronak eta Julen San Migel gazteak elkarren aurka jokatu zuten eta azkenean, 30-24 zeharrena nagusitu zen, bere bakarkako hamargarren txapela lortuz. Baina ez zion erraz utzi arerioak, eta San Migelek ere tanto on aunitz jokatu zituen. Jendeak ere ederki erantzun zuen, eta ia goraino bete zen frontoia: 1.000 ikusle inguru bildu ziren.

2005ean bederatzigarrena jantzi zuenetik, borts urte eman ditu zenbaki borobil horren bila Kotetok. 1990ean debutatu zuen, 16 urte bertzerik ez zituenean, eta 1995ean jantzi zuen lehen txapela. Hurrengo lauak ere beretzat izan ziren. 2001 eta 2002an bertze bi lortu zituen eta 2004 eta 2005ean azkenak. 2007an azpitxapeldun izan zen Patxi Zeberioaren kontragaldun ondotik, baina Migel Mari Urrutia saldiastarrak irabazi duen azken bi urtetan ez zuen finalean sartzerik lortu. Hamargarrena amari eskaini dio.

DATUA

6.115

METRO KOADROKO lur eremuan dago eguneko zentroa.

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

AUTOGINTZA → INAUGURATU DUTE EGOITZA BERRIA

Urtean 12.000 ibilgailu espero dituzte IATko estazio berrian

Joan den astean inauguratu zuten

TTIPI-TTAPA

Abuztuaz geroztik zabalik bazegoen ere, irailaren 7an inauguratu zuten Ibilgailuen Azterketa Teknikoak (IAT) egiteko Doneztebeko egoitza berria. Milioi bat euroko inbertsioa egin ondotik, bederatzi lagunentzako

lanpostuak sortu dira. Egoitzak aurrerapen teknologiko guztiak omen ditu ibilgailuak seguru ibiltzeko ebaluazioak eta diagnostikoak egiteko eta, gidariei zuzendutako zerbitzu integrala gestioatzeko ere bai. Enpresak aurreikusi duenez, 12.000 ibilgailu ikuskatuko dituzte urtean.

Inaugurazio ekitaldian, bertzeak bertze, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentea, Begoña Urien Angulo



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Antzinako kamioi batekin, azterketaren urrats guztiak azaldu zituzten langileek inaugurazio egunean.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko Enpresa zuzendaria; Miguel San Migel Doneztebeko alkatea; eta Ignacio Mosso TÜV Rheinland Navarra SA enpresako ordezkaria izan ziren. Mikel Biain Doneztebeko apezak bedeinkazioa ere eman zion ins-

talazio berriari.

Egoitzak 350 metro koadro baino gehiago ditu. Bi ikuskaritza ildo ditu, bata unibertsala eta bertzea ibilgailu arinentzako. Dokumentazioa bideratzeko kabinak, artxiboa, aldagelak, kominak eta bertze zenbait gela ere baditu, bai-

ta langileak erosoago ibiltzeko aurrerapen batzuk ere. Adibidez, gidariek, sartutakoan, ez dute ibilgailutik atera behar, kabinetan artatuko baitituzte. Gainera, ibilgailuan bertan egin ahal izanen dituzte izapide guztiak (identifikatu, erregistratu eta kobratu).

Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



%50
beherapena
koltxoi ekologikoan

*"Nafarroan
estimatzen den
altzaria"*



ITUREN

OSPAKIZUNAK → JOALDUNEK ETA IBINTZA KULTUR TALDEAK ANTOLATUTA

Dena prest dago larunbatean eginen den Joaldunen Egunerako

Larretxea eta Nazabal elkarren kontra ariko dira eguerdian plazan

Arkaitz MINDEGIA

Hutsik egin gabe, aruten ere Joaldunen Eguna antolatu dute joaldunek eta Ibintza Kultur Taldeak elkarlanean. Larunbat honetan, irailak 18, eginen da eta goiz-goizetik hasiko dira joare doinuak.

Goizean Amezti auzora joanen dira joaldunak herriko trikitilariekin. Sotilenean eginen dute lehenengo geldialdia. Hortik aitzinera baseritarrek etxeko atek zabal-zabalik ireki eta gosari ttikia eskainiko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Auzoetan barna ibili ondotik, eguerdian plazan eginen dute joaldunek eguneko azken itzulia.

diete. Ameztiko baserri guztietan geldituz, azken geldialdia Altxuneko bordan eginen dute. Handik Lasaga auzora jaitsiko dira joareen soinuak, eta gero herriara.

Eguerdialdera, joaldunak eta trikitilariak beraien buelta herrian egingo dituzte akituko dute itzulia.

AIZKORA, BERTSOAK ETA MUSIKA

13:30 aldera sekulako

aizkora apustua izanen da plazan: Donato Larretxea eta Floren Nazabal aurrez-aurre ariko dira. Ondotik, Jexux Mari Irazu eta Jon Maiak bertso batzuk botako dituzte bazkaldurako.

aitzinetik. Bazkaldurako ondorengoan, bertsoarien saioaz aparte, Mikel Salaberriren musika doinuak izanen dira gaueko ordu ttikiak bitarte.

Bazkaltzeko txartelak Herriko Ostatuan eta harategian daude salgai.

Trikitixa eta pandereta ikastaroak

Urrian hasiko den ikasturte berrian Mendaur Trikitixa Eskolan hasi nahi dutenek irailaren 21era bitarteko epea izanen dute izena emateko. Horretarako 646 298568 telefonora deitu beharko da (Ainara). Urtero bezala, Ituren, Oronoz-Mugairi eta Sunbillan emanen dira klaseak.

F. LANCHAS
Akutxidatzailea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
Jartzaia
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 756 M: 607 406 781

ZUBIONDO
Jatetxea
Agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

BIDASOA
TELARRAK - PERTARRAK
BOTOARRAK - AUTOMATARRAK
MOTARRAK - KONTARRAK
T.F. 943 61 50 60
Auzokari Legorburu Goñi
BILIN - BERRA

MARTIKO
Martiko
Pol. Zorain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hastabutek ezin dira erabili
DENDA
KORTATUA
ASTELAREN
ORTZIALERAN
8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara
Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA
AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI
Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak
Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

KIROLA → MIKEL MINDEGIA AIZKOLARIARI OMENALDIA

Udala prest dago dirua biltzen laguntzeko baina ez eskulturaren gastua ordaintzeko

Antton Espelosinek hainbat bide zabaldu ditu eskulturarentzat dirua biltzeko

Fermin ETXEKOLONEA

Aizkorarako duen afizioa eta aizkoraren inguruan egin dituen hainbat lan tarteko, ezaguna da Antton Espelosin sunbildarra. Bera izan zen *Ramon Latasa Basoko aizkolaria* liburua- ren edo Latasaren irudiekin osatutako DVDaren egilea. Sunbillan dagoen eskultura ere berak bideratu zuen.

Orain, berriz, Mikel Mindegiari egin nahi dio omenaldia, eta helburu horrekin aurkeztu dio Udalarari Mindegiaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtebete pasatu da herriak Mindegiari omenaldia eskaini zionetik. 2009ko irailaren 12an izan zen.

omenez eskultura bat egiteko ideia. 48.000 euroko aurrekontua edukiko luke eskultura hori egiteak, baina Udalak dirurik ez duela eta, gastua herriaren gain ez hartzea erabaki du. Aldiz, Mindegiak egin

duen ibilbideak omenaldia merezi duelakoan dago Udala eta Espelosini dirua biltzen laguntzeko prest agertu da. Edozein entitatetan dirulaguntza eskatzeko ardura bere gain hartuko luke Udalak, baina

herriarena den dirua erabili gabe.

Espelosinek, bere aldetik, dirua biltzeko hainbat bide zabaldu ditu. Alde batetik, *Aizkora apustuak eta txapelketak 1949-2009* liburua kaleratu du eta bil-

tzen duen dirua Mindegiaren oroigarria egiteko bideratu nahi du. Horrez gain, Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* ekimenean ere aurkeztu du proiektua, eta beraz, Nafarroako Kutxako edozein bezerok proiektu honen alde eginez gero, dirua Mindegiaren oroigarria egiteko bideratuko litzateke.

Dirua biltzen badu, eta gauza ongi badoa, orduan erabakiko da eskultura egin ala ez.

Euskararen Eguna

Aurreko urteetan bezala, aurten ere urriko lehenengo larunbatean egingen da Euskararen Eguna, urriak 2. Gazteak hasiak dira antolatze-ko bilerak egiten, baina egitarau zehatza hurrengo alean emanen dugu.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindlreak
mantelak
kuxinak
toailak

NEGUKO KOLEKZIO BERRIA Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

URROZ

BESTAK → SANMIGELAK IRAILAREN 24TIK 27RA ETA 29AN

Larretxea, Kastro, Arrospide eta Mindegia gaztea ariko dira igandean

San Migel Egunean akituko dira bortz eguneko bestak

ORTZIRALA 24

18:00etan beste hasiera emanez altxaferoa. **Ondotik** zopak Herriko Ostatuan. **00:00etan** dantzaldia SALABERRI-rekin.

LARUNBATA 25

11:30ean Gorritiren ikuskizuna. **12:30ean** mus txapelketa. **18:00-etatik aitzinera** pilota partidak eta ginkana. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia ITZALAK taldearen eskutik.

IGANDEA 26

Goizez eta arratsaldez haurretzako puzgarriak.

13:00etan aizkora apus-tua: Donato Larretxea eta Raul Kastro, Anjel Arrospide eta Xabier Mindegiaren kontra. **18:00etan** trikitixa emaldia. **Ilunabarrean** patata tortilla eta postre lehiaketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia AGERRALDEren eskutik.

ASTELEHENA 27

Goizez mus txapelketa. **Eguerdian** herri bazkaria Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin. **Ondotik** sokatira eta txingak. **Bazkarian, ilunabarrean eta gauetz**, musika JOXE ANJELen eskutik.

ASTEAZKENA 29

Mikel Deunaren Eguna

12:00etan Meza Nagusia. **Ondotik** herriko gazteen arteko herri kirolak. **Bazkal aitzinetik**



herritar guzientzat zizka-mizkak Herriko Ostatuan. **Arratsaldez** haurretzako jokoak. **Ondotik** herriko pala txapelketaren finala. **Akitzeko** bestetako azken dantzaldia AGERRALDEren eskutik.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ
Herritarren otorduetan giro ona sortzen denik ezin da ukatu. Begiratu bertzela argazki hauei... Ez dira berriak baina besta giroa nabaria da.

zalain
JATEOKA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

teluma egrako atzarak eta dekorazio abagarrak
Altzaren zaharberitze eta moldaketak

ingurulan ONGI PASA BESTAK!

Joseba@ingurulan.com 616295420 Urratz

José I. Gonzalez Enguita
pintura

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

UDALA → MANTENIMENDU LANAK

Herriko lanetan aritu diren langileei aste honetan akituko zaie kontratua

Baserriko bideak zabalitzen eta harrizko paretak egiten ari dira orain

TTIPI-TTAPA

Maiatzaz geroztik, herrian barna mantenimendu lanak egiten aritu diren bi lagunek aste hau izanen dute hondarrekoa. Lau hilabete hauetan hainbat lanetan aritu dira; ur depositu berriaren ondoan, adibidez, iturria, su-tokia eta mahaiak paratu dituzte. Eta azken egun hauetan baserriko bideak zabalitzen eta harrizko paretak egiten ari dira.

Nafarroako Gobernuako Enplegu Zerbitzuetik hartu ziren 18.000

euorekin kontratatu zituen Udalak bi langile hauek, ofiziala bat eta peoia bertzea. Bertzalde, Espainiako

Gobernuaren E-Planetik hartutako subentzioarekin errepide bazterretan babes-hesiak paratzekoak zituen Uda-

lak eta Sasoi enpresak uztailean egin zituen lanak. 16.000 euro inguru hartu ziren dirulaguntza deialdi honetan.



ARGAZKIA: ALBERTO SAN MIGEL

Akitu dira bestak

Bestek ere eman dute aurtengoa. Ortziralean espero baino jende guttiago ibili bazen ere, larunbat arratsaldean eta gauean jende aunitz hurbildu zen, baita igandeko aizkora apustua ikustera ere. Astelehenarekin egindako herri bazkaria ere arrakastatsua izan zen: 80-90 lagun elkartu ziren, eta herriak 150 biztanle dituela kontuan hartuz... Giro polita izan da, begiratu bertzela argazkiari.

URROZ

Nekazaritza azpiegiturak egiteko dirulaguntza eman du Gobernuak

Joseba URROTZ

Azkeneko bi urte hauetan ukatu ondotik, aurten Nafarroako Gobernuak Udalari dirulaguntza ematea onartu du nekazaritza azpiegiturak hobetzeko. Orain dela bi urte egin zen proiektu bera aurkeztu zen aurtengo deialdian ere, eta 173.000 euro hartuko dira. Diru hori hainbat bide hormigoitzeko eta azizendako bi aska egiteko erabiliko da.

Aurten lanaren erdia egin behar da guttienez eta gehienez ere urriaren azken alderako akitua egon behar du.

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

LEGASA

BESTAK → AKITU DIRA AURTENGOAK

Primeran joan dira aurtengo sanagustinak

Zikero jateak 140 lagun elkartu ditu aurten

TTIPI-TTAPA

Suziria bota zen momentuan zeru grisak eta euri tantak izan arren, bertzelako norabidea hartu zuten bestek hurrengo egunetan. Giro ederra eta aproposak lagundu zuen bestetako lau egunetan. Azpimarratu aurten lehen aldiz egin den hegaztien erakustaldia jende dezente bildu zuela. Gastronomía lehiaketak ere jende ugari erakarri zuen. Eta aizkora apustua ere ez zen atzean gelditu.

Bestalde, polita eta berezia izan zen igande gauean plazan egin zen afaria. Lurrean egurrakin sua piztu eta kerrenaren laguntzaz, xingarra, txistorra eta xolomoa afaldu zuten legasarrak eta bai bertan zeuden kanpotarrek ere. Askorentzat zerbait berria zen, ez baitzuten inoiz ikusia ezta erabilia ere kerrena bat.

Hala ere, urtero bezala, arrakasta gehien izan zuen ekitaldia zikero jatea izan zen. 140 pertsona inguru bildu zen bazkarira eta Arkaitz eta Miriamek alaitu zuten bazkalondoa kantu zaharrekin. Ondotik DJ-a izan zen eta horrela eman zitzairen beste amaiera.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarrek ederki gozatu dute bestetan. Argazki hauek mus txapelketakoa, hegaztien erakustaldikoa eta haurren jokoen ondotik egindako meriendakoak dira.

Giro ederra Santa Leokadia bestan

Giro polita eta atsegina izan zen Leokadiko bestan. Larunbatean, zopa jatearekin hasi zen besta. Eta igandean, Meza Nagusia eta bazkaria egin ziren eta DJ Txemarekin akitu zen urteetan

ospatzen den besta hau.

Eskolako lehen eguna egunkarietan

Aurreko alean erran bezala, eskolako haurrek irailaren 6an eman zioten hasiera ikasturteari. Nafarroan zazpi

ikasleko eskolak gaur egun «eskasak» dira eta hau islatzeko Diario de Navarrako kazetariak Legasara etorri ziren eskola ttikien hasierari buruzko kronika egitera. Irailaren 7arekin argitaratu zuten. Albisteak www.diariodenavarra.es web orrian ikus daitezke.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan)
Eskaintzaren azken eguna: irailak 30

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA
astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan 26€ pertsonako
larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan 29€ pertsonako
Eskaintzaren azken eguna: irailak 30

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN BEHAR DA
Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

ELGORRIAGA
ERRESERBA EGINDAKO
Errotaldea z/g
31744 Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com

ASIALDIA → BERTIZKO PARTZUERGOAK ANTOLATUTA

Bidasoako Bide Berdeko III. Mendi Bizikleta Martxa hilaren 26an

Lehen aldiz Gipuzkoa eta Nafarroako bide berdeetan barna egingen da

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatuta, Bidasoko mendi bizikleta martxaren hirugarren edizioa egingen da irailaren 26an. Aurten goa berezia izanen da, lehendabiziko aldiz Gipuzkoa eta Nafarroako bide berdeetan barna egingen delako, bere garaian, trenak egiten zuten bidea berreskuratuz. Behobian hasi eta Bertizen akituko da 50 kilometroko itzulia. Helduak Puntxasko gasolindegian abiatuko dira 10:00etan. Eta haurrak, berriz, Sunbillako ikuztegitik abiatuko dira 12:00etan. Hor paratuko da, hain zuzen, atse den hartzeko gunea.

Martxa hau Europako mugikortasunaren asteko programaren barne egingen da, eta Doneztebeko Bertiz BTT eta Berako Mandaniki enpresek lagundu dute, Nafarmendik jatekoa eta edatekoa eskainiko ditu, eta horrez gain, Nafarroako Gobernuak, Irungo Udalak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiek diruz lagunduko dute.

IZEN-EMATEA

Izena emateko e-postaz edo faxez egin behar da, www.consortciobertiz.org web orriaren dagoen orria betez edo telefonoz eskatuz (948 592323).

Hegaztien Mundu Eguna Etxalarren

Mendi bizikleta ateraldiaz gain, aurten lehengo aldiz, Hegaztien Mundu Eguna ospatu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den urteko edizioan ere, neska-mutikoez euren bidea egin zuten. Argazkia Sunbillan ateratakoa da.

ko da Nafarroan Bertizko Partzuergoaren ekimenez. Etxalarren eta Bertizen egingen da eta egun bat baino gehiagotan.

Alde batetik, irailaren 15etik aitzinera, hegaztien inguruko erakusketa zabalik dago Etxalarako Kultur Etxean.

Ekitaldi nagusiak, hala ere, urriko lehendabiziko asteburuan egingen dira. Urriaren 1ean, ortzirala, 19:30ean Etxalarreko Kultur Etxean diapositiba emanaldia eta adituen mahai-ingurua egingen dira. Ondotik, hizlarien eta hegaztizaleen afaria egingen da.

Larunbat goizean, urriak 2, hegaztien behaketa izanen da Bertizko

zako parkean, 10:30etik 14:00etara. Bazkaria izanen da gero-erreserba daiteke- eta arratsaldean kabiak paratuko dira zuhaitzetan (bereziki haurrei bideratutako jarduerak da).

Igandean, azkenik, 08:30ean txori behaketa egingen da Etxalarren.

Gauza guztietan (otorduetan ere bai) parte hartzeko, izena eman behar da Partzuergoan.

Estatuko bide berdeen topaketa

Espainako Bide Berdeen Fundazioarekin elkarlanean eta Ingurumen Ministerioak finantzatuta, estatu espainiarreko bide berdeen topaketa Bertizko Jaure-

gian egingen da urriaren 7an.

Egunari hasiera emateaz, Nafarroako Gobernuko ordezkariak, eta Ingurumen Ministerioako eta Fundazioako ordezkariak arduratuko dira. Horren ondotik, bide berde ospetsu batzuen inguruan azalpenak emanen dira eta segidan, Nafarroako bide berde guztiak izanen dira hizpide. Bidasokoaren kasuan, Euroveloaren proiektua azalduko da eta Doneztebe-Elizondoko zatia- ren egoeraren berri emanen da.

Arratsaldean, bide berdea eta dauden enpresa eta establezimenduak ikusteko bisita gidatua egingen da.

ANXITONEA
Turistakoa

24 inguru hainuzarekin - Apartaketa
Aste gutxiarekin gela puztatzen - Hain txikiak eta TI
Gela berria berritu da berri berriekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@anxitonea.com • www.anxitonea.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO FESTA ISKIBIN

Igande honetan ospatuko da Iskibi kanpineko Euskal Jaia

Herri kirolak, taloak eta musika izanen dira, besteak beste

Esteban AROTZENA

Herrian urtean zehar antolatzen diren festen barrenean, tarte propioa egin du dagoeneko Iskibi Euskal Jaiak. Hori ez da haritzekoa, ez baita beste jaiegunik herrian honek bezala musika, kirola, gastronomia eta parranda uztartzen duenik. Eta dena kanpinetik mugitu gabe.

Igande honetakoari, irailak 19, gainbegirada bat emanez, esan, dultzaineroek emanen diotela eguerdian festari hasiera. Ondoren, 13:00etan, aizkora eta trontzako desafioa jokatuko da. Alde batetik, herriko Jon Tximista eta Jon Gorgorikoa eta bestetik, Zubietako Eneko eta Mikel Santesteban. Pronostiko argirik gabeko apustua omen da herri kirolak hainbat adituk esan digutenez. Dena den, etxean jokatzeak ematen duen abantaila aprobetxatu

nahiko dute bi Jonek.

Aurreko edizioek bezala, 14:00etatik aurrera ospatuko den talo jatearekin joko du gailurra aurtengo Euskal Jaiak ere. Marrukoaz gain, hirugiharra, txistorra eta txokoltea zerbitzatuko du taloaren osagai Ximon eta Iza-kunen lantaldeak. Ez da inor gosez geldituko aurreko urteetan bezala funtzionatzen badu aipatutako kuadrillak. Sagardoaz, ardoz, kafez eta kopaz hornitutako bazkari honen ondoren, toka txapelketa hasiko da. 18:30ean, berriz, erromeria izanen da Maider eta Mikel trikitalarien eskutik.

Euskal Jai honetarako txartelak 16 eurotan daude salgai Amaiarenean (948 514243) eta kanpinen bertan (948 514277).

DENBORALDI BUKAERA

Hurrengo larunbatean, hilak 25, bukatuko du Iskibi kanpinak aurtengo denboraldia. Goi mailako DJa ekarriko omen dute 2010eko udari merezi bezalako azken agurra emateko.



ARGAZKIA: ROSA OLAIZOLA

Haur Txokoa zabalik

Udala eta gurasoen arteko akordioari esker, irailaren 1az geroztik, zabalik dago Haur Txokoa. Argazkiko bost haurrek osatzen dute taldea Rosa Mariren zaintzapean. Bidenabarkoz, esan, orri hau erabili nahi izan dutela haurren gurasoek haurtzaindegia sortzen lagundu duten guzietan eskerrak emateko: Udalari, Aizkorbe eta Mirentxuri, eskolari, Feria Eguneko talogile taldeari, jostailu eta materiala eman dutenei, eta Rosa eta bere «laguntzaileei» batez ere.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Etorbizuneko hiru pilotari

Lizarran, Barañainen, Doneztebeko Josetxo Ezkurra Memorialean, Errenterian, Hitza Txapelketan... Pilota txapelketa askotan ibili dira argazkiko hiru mutikoak: Aitor Aizkorbe, Iker Salaberria eta Antton Apezetxea. Batzuetan irabazi eta txapela ekarri dute etxera eta azpitxapeldun izan dira besteetan.

Baiatzinikin...

Zabala baserriko Joxemarik laster estreinatuko den *Harria* izenburuko filmean parte hartu duela Goizuetan errodatutako *Mugaldekoak*-en debutatu eta gero?



Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

proiektu zenbakia: **15.996**

ABACDEL®
Analisi klinikoak

FIATC LAGUN ARD
Aresa

Hematologia
Oñol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com



*Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak*

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

LEITZA

KIROLA → DESADOSTASUNAK AURRERAN

Pilota Eskolako Batzordeak kargua utzi egin du

Aurrerako zuzendaritzarekin desadostasunak dituelako hartu du erabakia

TIPI-TTAPA

Aurrerako Zuzendaritza Batzordearekin dituzten «desadostasunak» tarteko, Pilota Eskolako Batzordeko kideek kargua utzi egin dute.

Prentsara bidali duten oharrean eman dute erabakiaren berri Patxi Sagastibeltza, Jon Iparragirre, Sagrario Lasarte, Vicente Hernandezena eta Juan Jose Goikoetxeak.

Zergatiaren inguruan «ez gara azalpenak ematen hasiko —diote oharrean—, luzea izanen litzatekeelako eta gainera alde bateko ikuspegi bakarrik zabalduko genukeelako». Gaineratu dutenez, «zuzendaritzaren ustez gure eraba-

kietan 'pasatu' egiten gara eta inposaketa delamedio, 'behartuak' sentitzen gara uzteko». Lanetan segitzeko «ilusio eta gogo gutzia kendu» dietela ere adierazi dute idatzian.

Literatur lehiaketa

Aurten bosgarren aldiz, literaturlehiaketa antolatu du ALKE Kultur Taldeak. Bi sailetan banatuta izanen da: narrazio laburra edo ipuina alde batetik, eta bertso-pape-

ra bertzetik. Narrazioaren kasuan, bi orritik harrera artean idatzi behar dira. Bertsoen kasuan, 4 eta 16 bertso artean. Lanak aurkezteko epea urriaren 30ean amaituko da.

Pirinioetan barna

Mendibil Mendi Taldeak ateraldi ederra antolatu du asteburu honetarako, hilak 18 eta 19. Piriniotara joanen dira bi eguneko zeharkaldia egitera: Lescundik (960 metro) Linzara (1.350) egiten dutel arunbatean eta Linzatik Lescunera igande.

Larunbatekoa 6-7 orduko irteera izanen da, Petretxema (2.360 metro) igotzeko aukerarekin. Igandean 7-8 orduz ibili eta Hiru Erregeen Mahaia (2.428 metro) igotzeko aukera izanen da.

Larunbatean, 06:15ean aterako dira plaza-tik autoetan eta igandean itzulera 20:00 aldera egingen dute. Larunbateko afaria, gaua eta igandeko gosaria Linzako aterpean egingen dira. Bidaia eta aterpearen prezioa 40 eurokoa izanen da. Aurrerako bazkideei 30 euro kostako zaie.

Izena emateko azken eguna asteazken hau da eta Astiz, Maimur edo mendibilaurrea@hotmail.com-en egin daiteke.

FLASH

Mendi Bizikleta Martxa bertan behera

Igande honetan Plazaolan barna egitekoan zen Mendi Bizikleta Martxa eta Maratoi Erdia bertan behera gelditu direla jakinarazi du Plazaolako Partzuego Turistikoak. Uitziko tunelean obran ari den enpresak esan duenez, aurreikusitako egunerako ezin izanen ditu lanak bukatu, eta Natur Bidea bere osotasunean prest egonen ez delako, martxa eta maratoi erdia ez egingea erabaki da. Oraindik beste aste pare bat joanen omen da obrak bukatzerako.

Ginekologia zerbitzua eskaintzeko bitartekoak falta direla salatu du Leitzako EAK

Leitza eta inguruko herrietan ginekologia zerbitzua eskaintzeko dagoen «bitartekorik eza» kritikatu du EAK prentsara bidali duen ohar batean. Nafarroako Gobernuak kontu honekin duen «utzikeria» salatu du eta bere irudiko, «onarteziak» dira Etxarri Arantzeko Osasun Zentroan artatuak diren leitzarren ginekologiako hitzorduen atzerapeanak. Leitzako emakumez gain, inguruko herrietakoek arazo bera dutela ere adierazi du EAK idatzian.



ARGAZKIAK: NOTICIAS

Segurako artopila nagusi Talo Egunean

Talo Egunaren barne, bigarren urtez eskualdeko talo lehiaketa egin zen irailaren 5ean eta epaimahaiaren arabera, Segurako Joxepa Albizurena izan zen lehiaketara aurkeztutako artopilik onena. 28 puntu eskuratu zituen. Iazko irabazlea, Miki Zabaleta leitzarra, bigarren gelditu zen, 26,5 punturekin. Hirugarren postua Ilenia Villabonak eskuratu zuen —26 puntu—. Hala, 100, 50 eta 25 euroko sariak eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Ondotik sailkatu ziren Leitzako Itziar Bigera (23 puntu) eta Milagros Ijurko (18 puntu). Talo lehiaketa izan zen Talo Eguneko ekitaldi garrantzitsuenetako bat, baina gastronomiarekin, kulturarekin eta kirolarekin zerikusia zuten beste hainbat ere izan ziren. Udalak eta Plazaolako Partzuegoak antolatutako ekitaldian, astoak, zaldiak eta oiloak ere atera zituzten eta tiki-ki-ki, zaldiek tiratutako karroetan herrian barna ibiltzeko modua izan zuten. Herriko sukaldariak, taloa oinarri zutela, jaki gustagarriak eta bereziak ere pres-tatu zituzten eta haurrek ere izan zuten beraien lehen taloak egiteko aukera.



ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETA → AXPEN (BIZKAIA)

Igandean jokatu- ko den Euskal Herriko txapelketan ariko dira Antonio Alustiza eta *Ttiki* txakurra

Hamaikagarren
aldiz irabazi du
Nafarroako
txapela

Juana Mari SAIZAR

Ttiki txakurrari esker, bere hamaikagarren txapela eskuratu du Antonio Alustizak. Honen bestez, zazpigarren urtez segidan, Aresora ekarri du txapela eta *Ttikiren* lortu duen bosgarrena izan da.

Nafarroako Artzain Txakur Txapelketaren 43. edizioa abuztuaren 29an jokatu zen Uharteko Arakilen eta hantxe lortu zuen garaipena Alustizak. *Bat* txakurra ere aurkeztu zuen txapelketara, urte eta erdi-koa, eta seigarren sail-

katu zen. *Ttikik*, berriz, zazpi urte ditu.

Lehenengo postu horrekin, igande honetan, irailak 19, Apen (Bizkaia) jokatu den Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan parte hartuko du.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Markak hautsi ditu mendi martxak

Eguraldia lagun 514 lagun atera ziren mendi martxan. Herria aldatu egin zen: izugarritzeko kotxeen emana, goizean goiz jendea hankak luzatzen... Eta batzuk larunbat gauek ere etorri ziren bertan lo egin eta goizean prest egoteko. 08:00etan plaza beteta zegoen, antolatzaileak izenak hartzen eta dorsalak banatzen, denak abiatzeko urduri... Azkenean, jendeak gozatu egin zuen. Bidean zeuden hornidura postuetan guztia bukatu zen, baina plazan paella ederra eta sagardo kupel freskoa egon zen denentzat. Mendizaleei kamisetak banatu zitzaizkien amaieran. Hala ere, denentzat ez zirela iritsi eta batzuei beranduago bidaliko zaizkie etxera. Opariak ere banatu ziren. Antolakuntzan jende askok hartu zuen parte eta eskerrak eman behar zaizkie, urtetik urtera arrakasta handiagoa baitu mendi martxak.

ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Aralarrera bisitan

Gure herriko gurutzeak beste hainbat parrokitako gurutzeekin batera, Aralarko San Migeli bisita itzuli zion iraileko lehenengo igandean. Guardetxetik erromeria eginez, San Migel elizaren atarian meza egin zen giro ederrean. Aurtengo berrikuntza Iruñeko gazteek ekarritako gurutze erraldoia izan zen. Gurutze hau Juan Pablo II.a Aita Santuak oparitu zion munduko gazteei hainbat herrialdetan ezagutzera emateko. Hurrengo urtean gazteen mundu jardunaldia espainiar estatuan egiteko denez, aurtengo urte osoa estatuan barna erabiliko dute. Parrokiko gurutze guztiak agurtu zuten gurutze erraldoi hau eta Amabirjinen relikia, San Migelekin batera.



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA



- Zuzenbide Nagusiak
- Autua, etxebizitzak, isirpik eta bizitza asaguruak
- Lan aholkularitza
- Nominak eta Asaguru Sozialak
- Abokatuaren laguntza
- Errenta Deklarazioak, BEZA...
- Inbentarioak
- Baserri, berrak, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestioak
- Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berriketa eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Faxe: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

Eskalerak igotzea... ez da azpala
plataformak
igogailu bereziak
aulki bereziak...

Behetik



Aforaga-toki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

BAZTAN

BESTAK → ANIZKOAK URRIAREN 2TIK 5ERA

Euskal Herriko harri-jasotzaileen finala jokatu da igande arratsaldean

Larunbateko
ezkil
jotzearekin
hasiko dira lau
eguneko
bestak

LARUNBATA 2 Bezpera

12:00etan Ezkil jotzea eta altxaferoak. **14:00etan** haurrendako bazkaria. **16:00etan** puzgarriak. **18:00etan** txokolate jatea. **20:45-ean** Baztan Zopak. **Ondotik** dantzaldia. **Akitzeko** xinger jatea.

IGANDEA 3 Arrosarioko Amabirjinaren Eguna

11:30ean argisoinuak. **12:00etan** Meza Nagusia. **13:00etan** otordua. **18:00etan** Euskal Herriko harri-jasotzaileen finala. **Ondotik** dantzaldia. **Akabailan** afaria.

ASTELEHENA 4 Adiskidetasun Eguna

10:00etan gosaria. **11:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea, JOXE ANJEL



ARGAZKIAK: MAITANE MARITORENA

Gisa guztietako ekitaldiak izanen dira aurten ere bestetan, haur, gazte zein helduek, guztiak gozatzeko.

akordeoilariak alaitua. **17:00etan** ginkana. **21:00etan** xinger jatea. **Akitzeko** GIZAJOA NI.

ASTEARTEA 5

10:00etan gosaria. **11:00etan** herrigarbitzea.

OHARRA

Larunbatean, gan-torri autobusa izanen da.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Barría erosi taldea

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burriztezu auzoa - Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK

Arotxa

Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073
marotxa@terra.es

ABELTZAINZA → AURTEN 23. EDIZIOA

Pirinioetako behien lehiaketa-enkantea eginen da irailaren 24, 25 eta 26an

Ehunka abelburu ikusgai izanen dira Elizondon

TTIPI-TTAPA/ M. OTEIZA

Aurten 23. aldiz piriniar arrazako behien estatu mailako lehiaketa-enkantea eginen da Elizondon, hilaren 24tik 26ra Merkatuko Plazan.

IRAILAK 24, ORTZIRALA

- 15:00etatik aitzinera, aziendak Merkatuko Plazan sartzeko aukera izanen da.

IRAILAK 25, LARUNBATA

- 09:00etarako parte hartuko duten abelburuek Merkatuko Plazan egon beharko dute.
- 18:00etan behi-azien den erakustaldia.
- 22:00etan antolatzaileek parte hartzaileei afaria eskainiko diete.
- Egun osoan epaimahaikideak lehiaketan parte hartuko duten abelburuak baloratzen ariko dira.

IRAILAK 26, IGANDEA

- 10:30-14:00: Baztango artisautza azoka.
- 11:00etan Nafarroako aretxearen haragia eta Baztango gazta das-

tatzeko aukera.

- 12:00etan behi-azien daren enkantea.
- 13:00etan sari banaketa.
- Ondotik, Aspina elkar-teak Baztango aratxe piriniar bat zozketatuko du.

HAMAR KATEGORIA

Inguruko eta Euskal Herriko behiez gain, kanpotik etorritako ehunka abelburu ikusgai izanen dira, tartean Aragoi eta Kataluniakoak. Baserritar bakoitzak bi buru aurkezten ahal izanen ditu eta lehiaketan parte hartzeko behiak honela sail-



ARGAZKIA: ONDIKOL

12 egunez 1.000 kilometro egin nahi dituen lasterkaria Baztanen

Itsaso Kantabrikoa eta Mediterraneo lotuz, 12 egunetan 1.000 kilometro egin nahi zituen Bartzelonan bizi den Alexandra Panayotou iraupen-lasterkaria (Irlandan jaioa, Grezia biziutakoa). Eta bide horretan, irailaren 1ean Elizondora ailegatu zen. Alberto Barberena, Santi Dendarieta, Migel Jose Ariztia, Igotz Garde eta Aritz Gaztelu izan zituen ondoan Oronoz-Mugairitik Elizondorako tartean. Elizondora ailegatuta, Martin Garde zinegotziak ongi-etorria egin eta oroigarria eman zion. Argazkian, aipatuz gain, Elisabet Santesteban, Pello eta Lander Santamaria ageri dira.

katuko dira: zezenkoe-tan, hiru mailatan izanen dira: 24 hilabete artekoak; 2-4 urte eta 4 urtetik goitikoak. Urruxak zazpi mailatan banatuko dira: 8-18 hilabete; 18-24 hilabete; 2-3 urte; 3-4 urte; 4-6 urte; 6-8 urte eta 8 urtetik goitikoak.

Harrobiaren kontra 1.600 alegazio

Buruilaren 2an akitu zen Zilbetiko harrobiaren kontra alegazioak aurkezteko epea. Zilbeti Bizirik eta Erdiz Bizirik taldeetako kideek 1.600 alegazio partikular aurkeztu zituzten Iruñean, Magna enpresak egin nahi duen harrobiaren kontra. Horrez gain, zenbait tek-

nikarik egindako txostena ere aurkeztu zuten.

Bertzetik, hilaren 10ean, Seo Bird Life talde ekologistak hitzordua zuten Nafarroako Parlamentuan gai honi buruz solasteko eta alderdi politikoekin informazioa trukatzeko. Magnak Zilbetin egin nahi duenaren aitzinean, Seo Bird Life taldea Estrasburgoraino ailegatzeko prest dago.

Joxe Mari Istilart Euskal Herriko Artzain Zakur Txapelketako finalean



Joxe Mari Istilart.

Nafarroako Artzain Zakur Txapelketan, bigarrena izan zen Joxe Mari Istilart, bere zakur *Lagun*-ekin. *Xarparekin* ere aurkeztu zen lehiaketara, eta honekin 9. gelditu zen. Bigarren postu horri esker, igande honetan, irailak 19, Axpen (Bizkaia) jokatu den 44. Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko du Istilartek, *Lagun*-ekin.



ARGAZKIAK: JUAN CARLOS MORTALENA

Putreak etxeko terrazan

Gonbidatu bereziak izan dituzte berriki Arraioz aldean, putreak etxeko terrazaraino ere ailegatu baitira.

Eskisaroi
Jaimen Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

SOULE
hileta artea
Tfnoa: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → BESTA AMAIUREN

Errebestak ospatuko dituzte amaiurtarrek larunbat eta igande honetan

Ortziral ilunabarrean botako da suziria

TTIPI-TTAPA

Bestak alde batera utzigabe, aurten ere errebestak antolatu dituzte Amaiuren. Asteburu honetan izanen dira, larunbat eta igandean.

IRAILAK 17, ORTZIRALA

- 16:00etan Birbira Reziklaren eskutik, *Birziklatuz, maskara eta pertsonaiak egin* haurrendako tailerra.
- 20:00etan suziria eta ezkil jotzea.
- 21:30ean afaria Gaztelu elkartearen.
- 23:30ean rock kontzertuak goitiko ostatuan.
- Ondotik martxa goitiko ostatuan.

IRAILAK 18, LARUNBATA

- 11:00etan pala desafiota.

- 12:00etan herri kirol desafiota.
- 14:00etan zikiro jatea Agerraldek alaitua.
- 21:00etan zinger eta odolki jatea.
- Ondotik Mutildantzak.
- 00:00etatik aitzinera dantzaldia Mikel Hats taldearekin.

Baztandarren Biltzarretik deia

Baztandarren Biltzarra Elkarteko kideek «zailantza handiak» agertu dituzte Baztandarren Biltzarra eguna eta elkarrekin urte guzian egiten dituen hainbat ekintza antolatu eta segida izanzen ote dute. Elkartekideek beren borondatez esfortzu eta lan handia egiten dute eta aurten, kideetako aunitzek elkarrekin utziko dute eta inor berrikeri sartu ezean, «zailantza horiek areagotu bertzerik ez dira egingen», dio Baztandarren Biltzarren prentsara igorritako



ARGAZKIA: AGURTZANE

Zikiro erretzaileek larunbatean goiz hasi beharko dute lanean.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Badoaz herriz-herriko bestak

Joan dira Arraiozko bestak ere eta horrekin, poliki-poliki badoaz aurtengo herrietako bestak ere. Pasatu berriak Elbete eta Arraiozkoak dira, eta laster Aniz eta Gartaingoak etorriko dira. Argazkia aurtengo Arraiozko Grand Prix-eko da, urtetik urtera gero eta ospe handiagoa eta aldi berean, gero eta jende gehiago erakartzen duen ekitaldia. Aurten parte hartu duten gazteak ageri dira irudian.

ohar batean. Hortaz, elkartean lan egiteko deia egin du: «orain inoiz baino gehiago Baztandarren Biltzarrek zuen be-

harra du!». Bertzalde, aurtengo Baztandarren Biltzarren balorazio positiboa egin du oro har, baina zenbait aferen gai-

neko xehetasunak ere argitu dituzte. Prentsara bidali duten artikulua *Ira-kurleak Mintzo* atalean irakur daiteke osorik.



Bereziki ehiztarientzat

Elikadurarik hobereana zure txakurarentzat

> Dog Sport
% 25 proteina % 10 gantza: **10 €**
BEZ bane

> Dog Energy
% 33 proteina % 15 gantza: **13 €**
BEZ bane
• 20 Kg-ko zakuak

ZAGUA
ZAKUR, PENTSUA

PENTSUA ETXERA ERAMATEA DOHAIRIK

Frantziako errepidea, s/n
31714 Erratsu
M. 647 525 363

animalien kalitatezko elikatzeari, 40 urtetako eskaintza emanez
beste produktu, baldintza edo zerbitzuentzako gurekin kontaktuan jarri.

AISIALDIA → BERTIZKO PARTZUERGOA ETA UDALA

Pilotaren Unibertsoaren laugarren edizioak eman du aurtengoa

Patata tortilla txapelketan Itziar Galarregi nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 21ean hasita, hiru egunetan Pilotaren Unibertsoa jaialdia egin da aurtengoa ere. Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Udalak antolatuta egin den laugarren edizioa izan da aurtengoa eta azken saioa, hain zuzen, joan den igandean, irailak 12, egitekoa zen. Artisanazokaz gain, zesta punta, paxaka eta paletan ere aritzeakoak ziren eta ondotik, paellada ere egitekoa zen.

Aitzinekoan, berriz, irailaren 4an, pilotaz gain, hirugarren patata tortilla txapelketa egin zen, eta hiru sari banatu ziren. Itziar Galarregi izan zen txapelduna, eta sari gisa zartagi handi bat, mantarra, sukaldeko oihala, hiru litro olio eta sukaldeko tresnekin osatutako poltsa bat jaso zituen.

Saikapenean bigarrena Lucia Blanco gelditu zen eta honek zartagi ertaina, sukaldeko oihala eta bi litro olio hartu zituen. Hirugarrena, berriz, Angel Arozarena izan zen. Eta postu horren truke, zartagi tiki bat, sukaldeko oihala eta litro bat olio eskuratu zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irailaren 4an egin zen patata tortilla txapelketan Itziar Galarregi izan zen garaile —erdian—.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mugak berrikusten

Urtero bezala, muga egiten duten tokiak berrikusi zituzten Baztan, Senpere eta Urdazubiko udal ordezkariak irailaren 6an.

Gure Haragia
Nuestra Carne

Inaki Alzuyet margoak

Plata diseinatzaile eta irakurlea • Dekorazio artistikoak, marrazkiak, irudiak • Barnekoak
Lanbete eta lanbeteak irakurlea • Plaketa
Hartu eta eguna amaitzekoan garbitzen da

Tel.: 609 862 417 • Iru-tipi etxea - Lardibar Auzoa • 21711 URDAZUBI
ginturas.alzuyet@yahoo.es

HERRIKO ETXERIKO EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

Tel: 0559542519
Moztan eta Wénorripue

SARA

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Besa (Administratiboa) 21701 BESA | Bartzarrikoa 21712 URDABAI | Bazarria 21701 BESA | Luandak 21701 LUANDAK

MONTXO OSTATUA

ТАВАКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА • УРДАЗУБИ

Egunero irakia 10:30etik 02:30era

SENPERE

BESTAK → IBARRUN AUZOAN

Artxeluak taldeak kantaldia eskainiko du Ibarrungo bestetan

Xerri jatearekin hasiko dira bestak

Franck DOLOSOR

Ibarrungo bestak ate joka ditugu buruilaren 24tik 27rat ospatuko baitira. Ohiturari jarraikiz, xerri ttiki jatearekin hasiko dira Mikeliak ortziral arratsean Inharrea base-rian. Gero, asteburuan, animazio andana izanen da: ibilaldia oinez Ibarrun auzoan barna, pala norgehiagoka, kontzertuak Ze Esatek eta Smackwar taldeekin, trikitixa erakustaldiak Zaldibiako musikariekin, eta kantaldia Artxeluak multxoarekin. Ahots hutsez edo gitarraren laguntzarekin, Mi-

chel Labeguerie, Guk edo Eltzegor taldeen kanturak eskaintzen dituzte gazte hauek. Senpereko besten kari gaitzeko giroa piztu zuten uztailen eta aldi huntan ere ez da dudarik belarriak goxatzen ahalko direla. Ongi alegeratuko dute lehen Senpereko bihotza izan zen auzoa. Duela mende batzuk, herrigunea Ibarrunen zen eta noizbait oraingo Karrika Nagusirat eraman zen Gaztelua eta Akerretako errota ondorat.

Arte garaikidea

Anne Marie Jeannou eta Iñaki Viquendi arte garaikidezale senperrak ez daude lo. Iaz, Berinak arte garaikide lehen festibala apailatu zuten



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hamar bat senperrak eta azkaindar batek osatzen dute Artxeluak taldea.

Karrika Nagusiko saltzietako berinak apainduz. Ideia bera gogoan atxiki dute eta bigarren festibala prestatzen ari dira heldu den urteko, berrikuntza frangorekin. Urrian finkatuko dituzte xehetasunak. Festibalak polemika sortu zuen iaz Herriko Etxeak 12 000 euroko laguntza eman baitzion. Tirabirak tirabirara, herri ainitzek nahi lituzketen maila oneko bi artista ditugu. Bere jakitateak euskaraz irakasten hasi da aurten Iñaki eta Anne Marie Parisen ibilki da egun hauetan 19. auzoko arte garaikide festibala zuzentzen baitu.

Erretiroaren erreformaren kontra

Mugimendu zabala sortu da berriki Frantziako Gobernuak egin nahi duen erretiroaren erreformaren kontra. Buruilaren 7an, 13 000 lagun ibili ziren Baionako karriketan eta manifestaldi hortan senperrak ainitzek parte hartu zuen: herriko langileak, irakasleak, laborariak eta aduanako guardia ohi batek, bertzeak bertze. Ez dute begi onez ikusten erretiroaren adina gibelatzea eta kotizazio urte kopurua haunditzea. Beren ustez, ez da xuxena langileek indarrek egitea beti. Nahiago

lukete bertze iturriak atxeman ditzan Gobernuak.

Euskara goiti ari

Gazteenek eskolako bidea hartu dute duela zombait egun. Aipagarria da inguruetako bertze herrietan ez bezala gero eta haur gehiago bade- la eta gainerat ainitzek euskara edo euskaraz ikasten dutela. Ikastolan 71 haur daude, iaz baino gehiago. Eskola publikoan 275 ikasle dauzkate eta hauetatik %65 sail elebidunean ibilki da. Azkenik, eskola pribatuan (167 lagun) murgiltze eredu osoki euskaraz ari dira ttikienak.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Dabid Ariztimuño Baleztena eta **Maddi Olano Lizarraga**, Leitzakoak, abuztuaren 28an Leitzan.

Mohamed Bouanani eta **Sarra Bendriss**, Argeliakoak, uztailaren 16an Donezteben.

Miguel Jose Mindegia Mutuberría eta **Ana Maria Ezkurra Urtxegi**, Zubietakoa eta Doneztebekoa, uztailaren 24an Donezteben.

Igor Yugero Larequi eta **Olatz Estomba Etxegarai**, Donostiakoa eta Irungoa, abuztuaren 27an Etxalarren.

Bernard André Boyer eta **Margeurite Lasaga**, irailaren 4an Saran.

Jean Urbistondo eta **Silvia Agerre**, irailaren 4an Saran.

Eric Gilsou eta **Birginie Pascouau**, irailaren 4an, Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Karmele Oiartzabal Iturria, Arantzakoa, abuztuaren 23an.

Maitane Etxeberria Eskudero, Elizondokoa, abuztuaren 27an.

Haizea Larzabal Arriola, Sunbillakoa, abuztuaren 22an.

Iraia Etxandi Mujika, Urdazubikoa, agorrilaren 30ean.

Joana Jimenez Bengotxea, Urdazubikoa, agorrilaren 31n.

Jone Agirre Telletxea, Nartartekoa, abuztuaren 20an.

Asier Uharte Sanz, Doneztebekoa, ekainaren 22an.

Mara Gonzalez Villate, Doneztebekoa, uztailaren 19an.

Beñat Iribarren Maia, Doneztebekoa, abuztuaren 10ean.

Ibai Elizondo Uterga, Doneztebekoa, abuztuaren 27an.

Hegoa Aginaga Elizalde, Goizuetakoa, abuztuaren 28an.

Izaro Goienetxe Maritxalar, Lesakakoa, abuztuaren 27an.

Irene Muñoz Garrote, Etxalarkoa, abuztuaren 17an.

Elorri Ruiz de Larrinaga Maritorea, Anizkoa, irailaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Juan Cruz Iureta Sarreta, Elizondokoa, abuztuaren 27an, 80 urte.

Bautista Juantorena Deskarga, Leitzakoa, abuztuaren 27an, 82 urte.

Maria Karrika Ibarrola, Urdazubikoa, abuztuaren 26an, 99 urte.

Domingo Antonio Fernandez Sestayo, Elizondon, abuztuaren 28an, 53 urte.

Fermin Amorena Goñi, Iruritakoa, abuztuaren 28an, 96 urte.

Felixa Dainziart Irigoien, Zugarramurdikoa, abuztuaren 30ean, 87 urte.

Leonardo San Juan Telletxea, Bera-koa, abuztuaren 29an, 90 urte.

Ignacia Petirena Etxebeste, Lesakakoa, irailaren 2an, 88 urte

Jesusa Telletxea Otxandorena, Iturungoa, irailaren 2an, 88 urte

Salvador Agerralde Etxeberria, Zugarramurdikoa, irailaren 3an, 76 urte.

Agustin Urdaniz Saldias, Oronoz-Mugairikoa, irailaren 4an, 92 urte.

Felix Rodriguez Hernandez, Elizondon, irailaren 4an, 83 urte.

Luisa Goikoetxea Almandoz, Bera-koa, irailaren 6an, 79 urte.

Pedro Telletxea Iureta, Donamariakoa, irailaren 6an, 77 urte.

Mirentxu Santesteban Santesteban, Elgorriagakoa, irailaren 6an, 75 urte.



Angel MATXIARENA ARANIBAR

Bera/Donostian, 2008ko irailaren 6an
II. URTEURRENA

Egunero zutaz oroitzen gara,
aita.



ETXEKOAK



Raimundo PEREZ IRIARTE

Beran, 2007ko irailaren 16an
III. URTEURRENA

Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua*

KULTURKARI

Andutzeta 12, Etxalar

Tfnoa: 948 63 54 58

AIZKORA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Loiar-te eta Kastro bigarren mailan ariko dira heldu den denboraldian

Loiartek irabazi du Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketa

TTIPI-TTAPA

Jose Antonio Loiar-te zubietarrak eta Raul Kastro urroztarrak hirugarren maila utzi eta bigarrenen aritzeko txartela lortu dute. Abuztuaren 29an jokatu zen Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finala Arazurin, txukun aritu ziren, eta lehendabiziko bi postuak eskuratu lortu dute mailaz igotzea.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Segundo guttiatik gelditu da Asier Pellejero aresoarra mailaz igotzeko aukerarik gabe.

Uztailaren 8an Iruñean jokatuak kanporaketan sailkatu ziren lehen bostz aizkolariak ari-

tu ziren finalean. Loiar-te izan zen lanak akitzen lehena: 07:48ko denbora behar izan zu-

en 45 ontzako bi enbor eta bi kanaerdiko ebakitzeko. Raul Kastro urroztarra bigarren gel-

ditu zen, 09:08ko denbora egin ondotik. Asier Pellejero aresoarra, berriz, hirugarren gelditu zen (09:32).

Eneko Saralegi bigarren

Leitzako Talo Egurenen barne jokatu zen Euskal Herriko Gazte Mailako Aizkora Txapelketa eta Eneko Saralegi 17 urteko leitzarri bigarren gelditu zen. Estu ibili ziren Corchero txapelduna eta biak, baina azkenean 15 segundoko aldeaz nagusitu zen arabarra. Saralegi iazko txapeldunak 9 segundoko hobetu zuen iazko denbora.

HERRI KIROLAK → ARPANA

Euskal Herriko Lehen Mailako Arpanlari Txapelketa jokatu da urriaren 2an Igantzin

Igor Lasaga eta Jabier Galarregi izanen dira eskualdekoak

TTIPI-TTAPA

Igantziako sanmigelen barge, Euskal Herriko Lehen Mailako Arpanlari Txapelketa jokatu da urriaren 2an. Sei bikote ariko dira lehian, 18:00-etatik aitzinera.

Bikote hauek hartuko dute parte: **Igor Lasaga (Bera) eta Jabier Galarregi (Etxalar)**; Iñaki eta Josetxo Barberena

anaiak (Iraizoz, Nafarroa); Andoni Rezabal (Aia, Gipuzkoa) eta Aitor Rote-ta (Alkiza, Gipuzkoa); Esteban Pikabea (Gendiain, Nafarroa) eta Alvaro Morrondo (Ripa, Nafarroa); Unai Iraola (Ikaztegieta, Gipuzkoa) eta Jokin Garmendia (Baliar-rain, Gipuzkoa); Juan Carlos Lopez (Araba) eta Fernando Velez De Mendizabal (Ilarduia, Araba).

Bikote bakoitzak lan hau egin beharko du: 60 ontzakoari goitik beherako bostz ebaketa (enborra etzanda); 54 ontzakoari ezkerretik eskuine-

rako sei ebaketa (enborra zutik); 54 ontzakoari goitik beherako sei ebaketa (enborra etzanda) eta 60 ontzakoari goitik beherako bostz ebaketa (enborra etzanda).

Nafarroako Emakumezkoen Trontza Txapelketa

Hilaren 4an jokatu zen Arraiozen, Nafarroako Emakumezkoen Arpanlari Txapelketa, eta hiru segundo baino guttiago-gatik ez zen Berara joan txapela. Ana Lopez eta Itziar Nuñezek (Lezaun)



UTZITAKO ARGAZKIA

Migel Anjel Sukuntza nagusi txingekin

Nafarroako Gizonezkoen Txinga Txapelketa jokatu zen irailaren 5ean Leitzan. Migel Anjel Sukuntza herritar-rrak ez zuen hutsik egin eta berriz ere txapela jantzi zuen. 50 kiloko txingekin 14 plaza eta laurden eta 0,65 metro egin zituen. Bigarren postua Metautengo Simon Thomas Callaghanek eskuratu zuen eta Berriozarko Imanol Martin hirugarren izan zen.

07:11.94ko denbora egin zuten eta **Nerea Sorondo eta Amaia Garciak (Bera)**, berriz, 07:14.04-

koa. Hirugarrenak Susana Sanchez (Berriozar) eta Ainara Urriza (Eraso) izan ziren.

TXIRRINDULARITZA

Mendi Bizikleta Ibilaldia egingen da irailaren 26an Saran

20 eta 30 kilometroko ibilbideak izanen dira aukeran

TTIPI-TTAPA

Mendi bizikleta gus-tuko dutenek aukera ezin hobea izanen du-te Saran irailaren 26an. Joan den urtean egin ez bazen ere, auten, Sara-ko Turismo Bulegoak antolatuta Mendi Bizikleta Ibilaldia egingen da igande horretan eta bizikletazaleek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 20 kilometrokoa eta 30 kilometrokoa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Plazatik abiatuko da mendi bizikleta ibilaldia.

Goizean 09:00etan abiatuko da ibilaldia plaza-tik eta 1.400 metro-ko malda izanen du.

Bizikletan ibiltzeko ateraldiaz gain, zintzur bustitzea, hornidura puntuak eta opariak ere

izanen dira parte har-tzen dutenenentzat.

Bertzalde, kaskoa eramatea beharrezkoa

izanen da eta osasun egoera onean egotea ere ezinbertzekoa dela ohartarazi dute antolatzaileek. Hala, azken urtebetean egindako medikuaren azterketa eskatuko da.

Ibilaldian parte har-tu nahi duenak zortzi euro ordaindu beharko di-tu eta informazio gehi-ago nahi badu Turismo Bulegora dei dezake: (0033) 559542014.

Antolatzaileek argi azaldu nahi izan dute ibilaldi bat izanen dela, eta ez lasterketa bat. Al-di berean, istripuren bat gertatuz gero, Turismo Bulegoa ez da horren arduradun egingen.

NAFARROA → HERRI KIROLAK

Bera eta Baztango Basaburua nagusitu dira Herriz Herri Txapelketan

Berako taldea lehen proba konbinatuan atera da garaile eta Basaburua bigarrean

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 28an jo-katu zen Nafarroako Herri-z Herri Txapelketako azken jardunaldia Berriozarren, eta eskualde-

ko taldeak, Berakoa eta Baztango Basaburua, txukun ibili ziren. Bi proba konbinatueta aritu dira lehiari: lehendabizikoan, txokor biltzen, zaku lasterketan, lasterka eta arpanean eta bigarrean lastoa botatzen, txinga-eramaten eta ingudea altxatzen.

Lehendabiziko konbinatuan, aitzineko hirru jardunaldietan hobekien moldatu ziren hirru taldeen artean jokatu



ARGAZKIA: GOIKO

Berako taldeak lehendabiziko eta bigarren postuak eskuratu ditu Herriz Herri Txapelketan.

zen finala: Bera, Ultzama eta Berriozar. Eta ordura arte bezala, bertarrak fin egin zituzten lanak: 18:18.77ko denbora eginez nagusitu ziren. Bigarren Ultzamako taldea gelditu zen eta

hirugarren Berriozar. Basaburua ez zen finale-rako sailkatu.

Bigarren proba konbinatuan, bertzalde, ligo sistema erabili zenez, lau jardunaldietako puntuak batuta Ba-

saburuak lortu zuen emaitzarik onena: 14 puntu. Puntu erdira gelditu zen Berako taldea (13,5 puntu). Hirugarren Berriozar gelditu zen eta laugarren Ultzamako taldea.

irailak 16 - 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Lehiaketak



ELIZONDO | 2010.09-24-25-26

**Pirinioetako behien lehiaketa-
enkantea asteburu osoan**

Estatu mailako lehiaketa-
enkantearen 23. edizioa beteko
da eta hiru egunehunka abel-
buru ikusgai izanen dira Mer-
katuko Plazan.

Ospakizunak



BERA | 2010.09.18-19

**Lore Jokoen barrenean hainbat
ekitaldi prest ditu ikastolak**

Zenbait ekitaldi antolatu ditu La-
biagak asteburuan. Larunbate-
an euskal tresnen kontzertua
emanen du Juan Mari Beltranek
eta igandean Erromeria Eguna.

Antzerkia



ELIZONDO | 2010.09.19

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots Lur dantzalekuan**

Baztan Ikastolaren 40. urteu-
rrenaren harira, Pirritx, Porrotx
eta Marimotots pailazoak bere
ikuskitza eskainiko dute Lur
Aretoan, 17:00etatik aitzinera.

ELIZONDO

**Euskal Jaia Lur
dantzalekuan**

Irailaren 25ean Euskal
Jaia Lur dantzalekuan,
01:00etatik aitzinera.

Ikuskizunak

ELIZONDO

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots**

Irailaren 19an Baztan
Ikastolaren 40. urteu-
rrenaren harira, Pirritx,
Porrotx eta Marimo-
totsen ikuskizuna Lur
Aretoan, 17:00etan.

Kontzertuak

ELIZONDO

**Bidasoako beat&blues
banda Lur diskotekan**

Irailaren 24an Back
Bidasoa Beat&Blues
taldeak kontzertua es-
kainiko du Lur-en,
gauerditik aitzinera.
Sarrera doan.

Lehiaketak

SENPERE

**Besten inguruko
argazki lehiaketa**

Urriaren 31 arte
Herriko Etxeak argazki
lehiaketa antolatu du
eta aurtengo gaia
bestak izanen dira.
300 euroko saria.

IGANTZI

**XXXI. Artzain Zakur
Lehiaketa**

Irailaren 26an Mea-
kaundiko zelaian,
Artzain Zakur Lehia-
ketaren 31. edizioa.

LESAKA

**Beti Gazte elkartearen
Argazki lehiaketa**

Urriaren 30a arte
aurkez daitezke argaz-
ki lehiaketarako lanak.

ELIZONDO

**Pirinioetako behien
lehiaketa-
enkantea**

Irailaren 24, 25 eta

Erakusketak

ELIZONDO

**Pirinioetako etxeak eta
herriak**

Irailaren 3tik 25era
Polo Gartziairen *Piri-
nioetako etxeak eta
herriak* marrazki eta
akuarela lanen era-
kusketa Arizkunenean.

IRURITA

**Gorka Salmeronen
argazki erakusketa**

Urriaren 3ra arte
Gorka Salmeronen
argazki erakusketa
Olari jatetxean. 10:00-
etatik lokala itxi arte.

Bestak

IGANTZI

San Migel bestak

Irailaren 25etik urria-
ren 2ra.

URROTZ

San Migel bestak

Irailaren 24tik 29ra.

DONEZTEBE

Besta ttikiak

Irailaren 17tik 19ra.

AMAIUR

Besta ttikiak

Irailaren 17 eta 18an.

SENPERE

Ibarrun auzoko bestak

Buruilaren 24tik 27ra.

Hitzaldiak

BERA

**Euskal eskola
nazionalaz**

Irailaren 17an *Euskal
Herria estatuaren eus-
kal eskola nazionala*»
solasaldia Mirari Bere-
ziartuarekin, liburute-
gian 20:00etan.

**Alkoholiko Anonimoen
solasaldia**

Irailaren 18an hitzal-

dia Jesusen Bihotza
ikastetxean 20:00etan.

Ospakizunak

BERA

**Lore Jokoak Labiaga
ikastolaren eskutik**

Irailaren 16tik 19ra
hainbat ekitaldi antola-
tu dituzte Labiagak eta
Berako eta Bortzirietako
zenbait eragilek.

Dantzari Ttiki Eguna

Irailaren 18an Gure
Txokoa Dantza Talde-
ak antolatuta Dantzari
Ttiki Eguna egingen da.

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 18an Joaldu-
nen Eguna joaldunek
eta Ibintzak antolatuta.

SUNBILLA

**Ameriketan ibilitako
euskal artzainen eguna**

Irailaren 19an Ameri-
ketan ibilitako euskal
artzainen eguna.

GOIZUETA

Euskal Jaia

Irailaren 19an Euskal
Jaia Iskibi kanpinean.

PROPOSAMENA

IGANTZI

**XXXI. Artzain Zakur
Lehiaketa irailaren
26an**

Artzain Zakur lehiaketa-
tak hogeita hameka-
garren edizioa beteko
du Igantzin, besten
aitzineko igandean.
Urtero bezala, Nafarroa
eta Gipuzkoatik ez
ezik, bertze herrialde-
tik ere etorritako artzai-
nen eta zakurren harat-
honata ikusteko auke-
ra izanen da Meakaun-
diko zelaian, 16:30etik
aitzinera. Sanmigelak
hasteko modu ederra!



26an eginen da, estatu mailako lehiaketaren 23. edizioa.

LEITZA

V. Literatur Lehiaketa

Urriaren 30a arte aurkezten ahal dira ALKE Leitzako Kultur Taldeak antolatutako lehiaketarako lanak.

Irakurketak

BERA

Irakurketa aktiboa

Irailaren 16an Karmele Jaioren *Zu bezain ahal* liburua irakurketa aktiboa, Gure Txokoan 17:00etatik 20:00etara, Euskara Mankomunitatearen eskutik.

Kirola

LESAKA

Mendi Bizikleta Itzulia

Irailaren 19an antolatu du Beti Gazte elkarteak. Hiru ibilbide izanen dira aukeran.

BERTIZ

Bidasoko Bide Berdeko III. Bizikleta Martxa

Irailaren 26an antolatu du Bertizko Partzuzergo Turistikoak Behobitik Bertizera.

SARA

Mendi Bizikleta Itzulia

Irailaren 26an Sarako Mendi Bizikleta Ibilaldia, Sarako Turismo Bulegoak antolatuta.

LEITZA

Pirinioetara ateraldia

Irailaren 18an eta 19an Mendibil Mendi Taldeak antolatuta Lescun-Linza eta Linza-Lescu, bi egunez.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Jendeen jende

MATTIN IRIGOIEN

Alberdania, 2010

Jendeen jende antzerkia komedia bat da. Familia batean gertatzen da. Erretreta hartu ondoren bere sorterrira itzulia den izebak familiako zuhaitz genealogikoa egina du, eta 400 askaziz goiti aurkitu ditu bere ikerketan. Egun, denak gomitu dira besta egitera. Haatik, ustekabeak gertatuko dira, batetik familiako hiru belaunaldiak krisi egoera batean baitira, eta beren harremanak biziki minbera. Bertetik, horko nagusiak ardi zenbait hazten ditu bere etxalde ttipian, eta eritasun mehatxu handiak dira inguruko artaldean kotsuz. Azkenik, eta azken minutuan, nehorik badenik ere ez dakien familiako bat agertuko da diaspora urrunetik jinik... Zuhaitz genealogikoen egiteko ohidura azkartu da azken urteetan. Nolazpait, autoreak uste du euskaltasuna egunerokoan bizitzeko diren nekeziak, ordainezko bideak bilatzera bultzatzen duela jendea. Ondorioz odola, izena, etxaldea eta arbasoak bilakatzen dira euskaltasun permanente baten sentimendua. Horren inguruan irri egiteko antzerkia da hau.

Musika



Bizi-bizirik

GOZATEGI

Babel Musik, 2010

Ibilbide luzea du Gozategi taldeak. 90eko hamarkadan eman zituen lehen pausoak arrakasta handiarekin. Urteen joan-etorriak aldaketak ekarri ditu taldera. Hasiara bateko hirukotea, boskote bihurtu da. Gaur egun, Asier Gozategik (trikitixa eta ahotsa), Iñigo Goikoetxea (baxua eta ahotsa), Imanol Goikoetxea (gitarra) eta David Gorospek (bateria) osatzen dute taldea. Baina aldaketak aldaketa, musika jotzeko gogotsu segitzen du Gozategik. Hortik seigarren diskoari eman dioten izena: Bizi-bizirik. Ohi duenez, erritmo dantzagarriekin dator Gozategi. Baina baditu berritasun nabarmenak. Trikitixaren oinarria galdu gabe, instrumentu berrien sarrerak aire berria emanen dio taldeari. Metalezko haize instrumentuak eta bibolinak sartu dituzte eta sonoritate berezia lortu dute. Bilboko Babel Musik diskoetxearekin argitaratu dute disko berria, David Nanclares ekoizlea eta Asier Erzilla teknikariarekin. Diska aurkezten plazaz plaza dabilta uda osoan.

Internet




Musikaren euskal aldizkaria sarean

WWW.ENTZUN.COM

Entzun! aldizkaria bi hilabetekari izatetik urtekareri izatera pasatu da. 52 orriko argitalpena izatetik 144 orriko liburu mardula izatera. Baina Euskal Herriko eta kanpoko musikaren aktualitatea eguneroko segitzen ahal da webgunearen bitartez: berriak, diskoak, elkarrizketak, dosierak, foroak... Euskal musikan zein den zein (taldeak, diskoetxeak, management, jaialdiak, komunikabideak...) ezagutzeko ere gida jakingarria ematen du eskura. Gainera, maketak, erreportajeak, iritzia, kronika zuzenak eta atzera begira egindakoak, aholkuak... denetarik aurki daiteke alfabetikoki antolatuta, estiloaren, taldearen, izenburuaren, diskoetxearen edo aholkulariaren arabera egokitua. Euskal bideoklipen bilduma ere eskuratzen ahal da atari honetan. Musika hobeki ezagutzeko aski webgune osotua. Akats bakarra: ezin dela komunean irakurri.

Nire aukera



Maite OSKOZ

Doneztebeko Kosma dendakoa

«Ongi akitzen diren nobela erromantikoak gustatzen zaizkit»

Dendako lanak, Doneztebarrak Merkatarien Elkartek eta seme-alabek asti libre sobera uzten ez diotela onartu arren, irakurtzea aunitz gustatzen zaioa aipatu digu Maitek, «narratiba eta ongi akitzen diren nobela erromantikoak, batez ere». Orain, «aspaldiko gogoan betez, trikitixa ikasten hasiko naiz». Horretaz gain, gurutze-puntua egitea ere gustatzen zaio. Asteburuak «seme-alabekin egoteko eta Almandozen familia bisitatzeko» aprobetxatzen ditu. Animaliak ere atsegin ditu: «Oizen poni bat, zakurra, arrainak, txoriak... denetarik daukagu». Oporraldian hondartzara 4-5 egunerako joatea gustatzen zaio, «Salou eta inguru horretara». Halere, bereziki gogoan du ezkon-bidaia: «Mexiko eta New Yorkera joan ginen. Nik ez nuen New Yorkera joan nahi eta gero ez nuen bueltatu nahi, aunitz inpaktatu zidan eta emozioz gogoratzen nintzen». Berriz ere itzuliko litzake, «baina hegazkinean gaizki pasatzen dut».

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Eguzkie-der karrikan -tailer inguru-, 2. eskuko kalefakziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000 Pta. (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala. ☎657 715243/657 799953.



DONEZTEBE. Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua. 3 logela eta 2 komun. Mobleztatua. ☎679 109423.

ETXALAR. Lizaietako paraje zahar berritze-ko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661121540.

BERA. Itzea karrikan pisua salgai. 90 m², 3 logela, 2 bainugela, igogailua. Eguzkitsua. Dena berritua. ☎699 634554.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. 70 m²ko babes ofizialeko pisua salgai. Bi logela, egoera onean. Trastelekuan. Prezio interesgarria eta negoziagarria. ☎690 694050/639 050188.

ELGORRIAGA. Etxebizitza adosatua salgai. 3 solairu, 50 m²ko lorategia eta garajea. ☎609 701035 (20:00-22:00).

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. Parrokia karrikan pisua salgai. 3. solairuan, 3 logela eta 2 komun, balkoi handia, igogailua eta mobleztatua. ☎665 709848.

ZUBIETA. 90 m²ko pisua salgai, trasteleku eta berogailuarekin. Eguzkitsua eta egoera onean. ☎660 270400.

LESACA. Etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

IRUÑEA. Mendebaldea auzoan pisua errentan emateko, 3 logela eta 2 komun. Unibertsitate eta ospitale hurbil. ☎646 674406/628 581031.

BERA. Agerra auzoan pisu mobleztatua errentan emateko. ☎948 630421.

BERA. Pisua errentan emateko. ☎606 022378/609 209295.

ETXALAR. Bi bizitzako etxebizitza lur eremuarekin errentan emateko. ☎662 244389/696 890471.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

MALERREKA edo BERTIZARANAN neska euskaldun batek pisua errentan hartu nahi du. ☎617 834361.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

BERA. Toki Ona Institutuaren ondoan, 80 m²ko bajera salgai. Etxebizitza eraikitzeo aukerarekin eta ondoko lur eremuarekin. Errentan emateko aukera ere badago. Prezio negoziagarria. ☎664 711853 (20:00etatik aitzinera).

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

BERA. Telefonikaren ondoan garaje itxia errentan emateko. ☎948 630672.

LUR EREMUAK
salgai

LESACA. Nabaz auzoan 2.600 m²ko lur eremua salgai. Bista ederrak, oso eguzkitsua eta lautada edo zelai haundiarekin. ☎661 219827/terrenolesaka@hotmail.com.

LANA
eskariak

BAZTAN. Bertako neska bat ordu batzuk lan egiteko prest dago. Zerbitzatzen, garbitasunak, bazkariak... Badaki frantsesa. ☎948 920024.

Esperientziadun pertsonak **pladur, margo edo ta igeltsero lanak** egiten ditu, prezio ekonomikoan. Txukuna lanean. ☎608 998990 (Mikel).

Esperientzia duen **emakume** bat zahar-etxean edota etxez-etxe arreta zerbitzuan ariko litzateke, baita etxe lanak egiten ere. Euskalduna eta frantsesa dakiena. ☎677 288908.

Geriatriko auxiliarrak jende heldua edo ezindua zainduko luke zainketa pertsonalean, etxe-ko lanetan, laguntza bizitza sozialean eta ospitalean eta etxean gauak ere bai. Esperientzia profesionala kontrastatua. ☎609 477277.

LANA
eskaintzak

Teleoperadora bat behar da lanerako. Euskaraz jakitea eta lanerako gaitasuna izatea hartuko dira kontuan. Ongi ordainduko da. ☎699 382673.

MOTORRAK
salgai

Mercedes c220cdi, 150

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(abuztuaren 27tik irailaren 3ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 32,00 € (-1,00)

Zerri gizena
1,190 € kilo. (-0,035)

Zerramak:
0,410€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,86 (+0,04)

1.koa 3,55 (+0,02)

2.koa 3,02 (+0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,96 (+0,04)

1.koa 3,65 (+0,02)

2.koa 3,19 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,70/2,80

Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,30/8,00

8-10 kilokoak: 6,20/6,50

CV sport coupe salgai, 2006koa, 75.000km. Iruñeko Mercedes etxean erosia eta errebisio guztiak bertan eginak. Egoera ezin hobean. ☎699 122815 / 600 699266.



Golf TDI salgai, egoera onean. ☎650 064912.



Renault Kangoo luzea 1.5 dCI 65DS salgai. 28.000 km. 2005ekoa. Egoera oso onean. Beti garajejan gordea, rebisioak Renaulten eginak. 6.000 euro. ☎679 228189.

Yamaha YBR 125eko motoa salgai. 2005 urtekoa. Extrekin. 1.200 euro. ☎619 960122.

Xsara Picasso 2.0 HDI salgai. 4.700 euro. Egoera onean. ☎686 018478.

Kamiaioa eta Transportes Bldasoen zona motzeko plaza salgai. ☎618 962566 (Altuna).

Citroen Berlingo salgai. 1.9 diesela. 2001ekoa. 80.000 kilometro. ☎686 990087.

Rieju RR sport 50 motorra salgai. Egoera onean eta ITV pasatu berriarekin. ☎699 534512




Jeep Grand Cherokee Limited 5.200 V8 gasolina salgai. 3.000 euro. Egoera onean. ☎607 446925.



Peugeot 206 HDI 1.400 salgai. 75 zaldi. Egoera onean. ☎948 630672.

ANIMALIAK
oparitu

Zakurkumea oparitzeko. Atta ehiztari ona. ☎679 892622.



ANIMALIAK
salgai

Bi urteko astoa umearekin salgai. Arra hartua.

Polita. ☎948 630004.

Bi asto eme bere bi astokumeekin salgai. ☎627 735113.

Sabueso arrazako bi hilabeteko zakurkumeak salgai, 2 ar eta eme 1. Aita eta ama basurdeetan hagitz ongi ibiltzen direnak. Marroi eta xuri kolorekoak. ☎630 321501.

BERA. Bi hilabeteko seterrak salgai. Aitak onak oilarorretan. 100 euro. ☎675 717258.



E pagneul Breton arrazako 18 hilabeteko zakur emea salgai. Biltzen eta gelditzen dakiena. ☎680 986836.

GOLDARATZ. Astoak salgai. ☎948 503230.

DENETARIK
salerosketak

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Lau aho-tsekoa. Si bemoleko tonuan dagoena eta posible bada ZERO-SETTE markakoa. ☎600 028290.

Ongarria hedatzeko karrak trakzionatua salgai. Agria 9.900 Z-entzat egokitua. Egoera onean. ☎689 042282.

Su egurra salgai, lotean

SANTESTEBAN Tailerrak

MESEAN GRANT TOUR 1.500 KM CV 2007koa - 43.950 km

TRAFFIC & PLAZAZOIA 1.950 KM CV 2007koa - 44.500 km

KANGOO PACK AUTOMATIKO 1.500 KM CV 2007koa - 25.700 km

ETA GAINERA

Traffic 2.0DCI 156 CV - Fylaxa - 2005koa
Clio Convention 1.5DCI 65 CV - 2005koa
Peugeot boxer 2.8 125 CV
Ford Maxxus 2.0TDCI 115 CV - 2007koa
Citroen Xsara Familiar 1.9TD 90 CV
Renault Laguna 2.2i
Citroen Xantia 2.0D

ADONIZATUEN RENAULT-en KOTZE IA BERRITAN SEKULARO ESKAINZAK

edo xehetua. ☎699 461394.

ZUBIETA. Artisanu ehungailua salgai (bajo lizo deiturikoa). ☎948 920020.

Trabiesak salgai, 2,5 eta 3 metrokoak. Egoera onean. ☎657 708866.

DENETARIK
galdu-aurkituak

BERA. Abuztuaren 6an Altzateko Plazan edo Altzate karrikan giltzak galdu ditut. ☎605 769067.

LESAKA. Opel markako autoaren giltzak aurkitu dira. ☎948 637030.

LESAKA. Giltza multzo bat aurkitu da. ☎948 637030.

GOIZUETA. Emakumezkoen erloju bat aurkitu da festetan, frontoi ondoan. ☎948 514006.

BERA. Uztailaren 2an Altzate eta Legia karriken artean Ford markak ko-

txearen giltzak eta bertze giltza batzuk galdu dira. ☎948 630156.

ARANTZA
Zurgindegia.....

• Klase guztietako zurgin lanak
• Eskatu sarekontuak konpromisurik gabe

José Manuel González
Tel: 948 630 608 - 647 010 144
Gertelxo - ARANTZA

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

GANIX
TAILERRA

(bilgailuen mekanika eta elektrizitatea)

BERA FIAT zerbitzuak

Burlandiko, 7 • Tel: 948 630 647

Comercio a punto **MERKATARITZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK**

IKASTARO HAUEK EGITEKO, %100eko diru-laguntza ematen sale langabeel eta sektorearte prestakuntza-planetatikoa langileel

	Ikastaroak	Orduak	Datak	Egunak	Orduetegiak
BERA	Merkataritzara egokitutako paketeria eta bilgarrien erabilera	10	16/11/2010 - 22/11/2010	A - 0	14:30 - 16:30
LESAKA	Erakuslehoak antolatze teknika aurreratuak, merkataritza txikirako	20	02/11/2010 - 15/11/2010	A - 0	14:30 - 16:30
ELIZONDO	Informatika, zure saltokia kudeatzeko	20	18/10/2010 - 29/10/2010	A - 0	20:00 - 22:00

Informazioa eta izen-emateak: 948 23 99 08 / www.comercionavarra.com / formacion@comercionavarra.com

Finantzatzaileak:

Abitzailak:

Ikastaro-emaketa:

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez




JUNE SALGADO SOLO lesakarrak irailaren 4an 2 urte bete ditu. Zorionak sorgina!!! Atta, ama, Ekiñe eta amatxiren partetik.



Donamariako **IDOIA ARREGIK** abuztuaren 29an 30 urte bete ditu. Nahiz eta fuerte zahartzen ari, zorionak amatxo Oinatz eta Bihotzen partetik.




Donamariako **BIHOTZ BALEZTENAK** irailaren 24an 4 urte beteko ditu. Zorionak Oinatzten partetik.



Donamariako **OINATZ BALEZTENAK** abuztuaren 7an 2 urte bete ditu. Zorionak Bihotzen partetik.



Goizuetako **AIORA APEZTEKIA** ETXEBERRIAK 6 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu bat familia eta bereziki Xanet anaiaren partetik



Lesakako **MADDI ARIZTEGI** ANT XORDOKI. Gure printzesak 5 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionik beroenak eta muxu erraldoi bat Leire, amatxo eta attaren partetik. Aunitz urtez!



OIER AGINAGALDE IPARRAGIRREK irailaren 26an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, Aimar eta amatxiren partetik.



Zorionak Oizko **SAIOA OTEIZARI** abuztuaren 18an egin du urtea. Muxu bat gure saltsera politenari. Atautxi, amatxi, osaba-izeba eta bereziki izeba Soria.



Zorionak **SAIOA**, abuztuaren 18an urtea bete duzulako. Segi orain bezain sorgina izaten. Muxu bat printzesa. Atta eta ama.




IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



AIORA ITURRIAK irailaren 13an 6 urte bete ditu. Muxu haundi bat Arantzako familiaren eta bereziki Oihan eta Karmeleren partetik. Zorionak!



MATEO LERTXUNDI FLORESEK 3 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionak gurasoen, anaien eta familia guztiaren partetik.



Erratzuko **ARITZ ITURBURUA** JAURENAK 5 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionak bi lehen-gusuen partetik, Naroa eta Naroa, eta bereziki Iker anaiaren partetik.



Beintza-Labaien eta Amairuko **BEÑAT ALBISU** ETXEBERRIAK 5 urte bete ditu irailaren 15ean. Zorionak piitintu!



EKHI ROJO RODRIGUEZ lesakarrak urtea beteko du irailaren 19an. Ederki pasa zure lehen urtebetetzea bihurri! Mila muxu familia guztiaren partetik. Muak!



EKHI ROJO RODRIGUEZ gure etxeko tikiak urtea beteko du irailaren 19an. Segi beti bezain alai eta maitagarri bihotza! Muxu pila aitatz eta amatxiren partetik, aunitz urtez!



IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.




IKER PETRIRENA PIKABEA beratarak irailaren 6an 4 urte egin ditu eta SAIOA PETRIRENA PIKABEK irailaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



SAIOA SANTESTEBAN CAMY SARTHYK urtea bete du irailaren 7an. Zorionak Etxalarko atatz eta amatxiren partetik.



ARANTXA TOLOSA eta **OIER GASTESIK** irailaren 22an eta 27an 35 eta 5 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki izeba Mª Joseren partetik.



LUKEN ANSALAS MAIZ tikiak urtea bete du irailaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat gure pottotxori Etxalar eta Arantzako familiaren partetik.



MALEN FAGOAGA IZA irundarrak 4 urte bete ditu irailaren 8an. Muxu pila pila, Aiora ahizpa, Eider eta Izaro eta familia guztiaren partetik. Zorionak sorgintxo eta txintxo-txintxo portatu!




Donamariako **XUBAN ERBITIK** 5 urte beteko ditu irailaren 25ean. Muxu asko Ugaitz eta Ibankaren partetik.



XUBAN ERBITIK 5 urte beteko ditu. Besarkada bat etxeko piratari. Ongi pasa!



Igantzi **UNAI INARREA** IGUZKAGIRREK 2 urte beteko ditu urriaren 7an. Zorionak Igantzi eta Berako familiaren eta bereziki Mikelen partetik.



Igantzi **UNAI INARREA** IGUZKAGIRREK 2 urte beteko ditu urriaren 7an. Zorionak Igantzi eta Berako familiaren eta bereziki Mikelen partetik.



Igantzi **UNAI INARREA** IGUZKAGIRREK 2 urte beteko ditu urriaren 7an. Zorionak Igantzi eta Berako familiaren eta bereziki Mikelen partetik.



Berako **ANARA ARANDIA** ELUZONDOK irailaren 15ean 5 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik eta bereziki Aimarren partetik. Muxu haundi bat. Maite zaitugu!

ttipi-ttapa

FUNDAZIOAK

zure laguntza behar du

eginzazu ttipi-ttaparen alde

proiektu zenbakia: 15.996

Dagoeneko

791

LAGUNEK egin dute gure alde

Eskerrik asko

Zure laguntza eskertzeko, poltsa eder hau izanen duzu opari.

Eko ezazu ttipi-ttaparen proiektua sukertu izanaren frogagarria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta eko ezazu ttipi-ttapara 2010eko abenduaren 30a baino lehen.

Bidali ttipi-ttapa hemik kanpo biz diren lagun edo familakoei.

(0034)948 63 54 58

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



DESKONTUAK
ZOZKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

525 ALEKO IRABAZLEAK

- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Anabel Goienetxe | Etxalar
- * TXAPELA BURUAN 2 KAMIETA
Jabier Bertiz | Igantzi
- * ABRITE PORTAS LIBURUA
M^a Paz Goñi | Elizondo
- * MARTIKO LOTEA
Mirentxu Goienetxe | Amalur
- * XABI ABURRUZAGA CDa
Esther Mentaberri | Bera
- * DONOSTIAKO AQUARIUM 2 SARRERA
Manuela Iantzi | Lesaka

ZOZKETAK

t tipi txarteldun guztien artean
zozketatuko dira sari hauek

ZORIONAK

* Hilabete bateko epa sariak biltzeko



LOTEA
PIRRITX, PORROTX
ETA MARIMOTOTS



KAMISETA 1
ONIN ART
www.oninart.com

TTIPI SASKIA

- TTIPI-TTAPAKO POLTSA
- ARGITXO PUZZLEA
- BASAMORTUA LIBURUA
- TXAPELA BURUAN TA IBILI MUNDUAN
- KAMISETA
- PIRRITX ETA PORROTX DVD



2 LIBURU
IBAIZABAL
www.ibaizabal.com



2 SARRERA
ARTIC
IZOTZ JAUREGIRA
www.hieloartic.com

DESKONTUAK

jaione *fundategia*
%10, 1.201k gorako gutxian

FOTO MENA
%10 deskontua kopia digitaletan

Kimetz
Balazartola
%10 kosmetikan

Ostari optika
%10, 3001k gorako gutxian

KATTALINGORRI
%10eko deskontua

Elizondoko AEK

Suinki euskaltegia

948 452 471 / 645 26 49 60

Euskara?



ikasi euskara
eman izena

æk-n

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

www.aek.org · 902 36 22 94